

uk

145. zenbakia / 2008 urriak 21



Zabaldu!

lagunartea zure euskara bizipenak zure ideiak
bizkaiera zure zaletasunak euskaraz bizitzera

Hurbildu berbalagunera!



URRIAN ZEHAR IZEN EMATEA ETA INFORMAZIOA

EGIZU GETXO EUSKALDUN ELKARTEA
Getxo Karitatea 1, sotoa 10. bulegoa // 94 491 4357
egizugetxo@yahoo.com // www.blogari.net/egizu

Antolatzaileak



Laguntzaileak



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Billabong Pro Mundaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Usategi parkea.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Iñigo Fdez. de Martikorena.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Mataderoaren eraistea.
28. ARGAZKIA. Usategi.
30. BERBETAN. Maite Agirre.
34. FOTOGRAFIA. Miguel Trillo.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. *La maquina de pintar nubes*.
43. MUSIKA. Getxo Sound jaialdia. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Irakurzaleen txokoa, Jon Martin. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Bizkaia Kirola sariak eskualdean.
46. ELKARRIZKETA. Eztabaida: gune antiautoritarioa.


AMAITZEKO

49. NON JAN. Bisu Taberna, Sopela.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Sarrikobaso Futbol Taldea 1948, Bittor Egurola.
54. AITORMENAK. Aitor Beltran, Maitane Nerekan.

Azala: egilearen izena Miguel Trillo



30 Maite Agirre



11 Iñigo Fdez. de Martikorena

Berbetan

Euskalduna, aktorea, eta emakumea gainera; eguneroko borrokara ohitua. Getxoko Antzerki Jardunaldietako azken perla eskaini digu.



46 Eztabaida: gune antiautoritarioa



34 Fotografia, Miguel Trillo



13 Xabier Monasterio




54 Aitor Beltran


Bilatu zure Renault "Km.0"
Bilbo Berri Getxo-ren web berrian
www.seminuevosengetxo.com
BILBO BERRI
Bizkarre, s/s - ALCORTA. Tel. 94 430 58 81

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
 Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberua Iturburu, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Menbaca, Ane Basagoti
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorika Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

Euskararen seme leiala

“Esku leunez” idazten zituen eleberririk Gotzon Garatek. Zoritxarrez, XXI. mendeko “Izurri berriak” eraman egin du; euskarak seme leial bat galdu du. Berak bultzatu zuen Euskal Filologiako lehenengo lizentziatura Deustuko Unibertsitatean. Herriz herri eta etxez etxe joan zen hizkuntzaren altxor zaharren (esamoldeak eta atsotitzak) bila. Marxismoaren sekretu handiak hurbildu zizkigun euskaldunoi. Oparoa da idazle elgoibartarrak utzi digun uzta. Gure eskualdeari ere ekarpen garrantzitsua egin zion; bera izan zen, herrietako antzinako toponimia aztertzen zegoela, Itzubaltzeta auzoko jatorrizko izena berreskuratu zuena.

UKtik omenaldi xumea egin gura izan diogu. Baina ez diogu agur esango, gero arte baino. Izan ere, badakigu “Goizuetako ezkongabeak”, “India harrigarria” edo berak sortutako edozein literatur lan esku artean hartzen dugunean, hantxe egongo dela, orrialdeen artean. Badago sekula hiltzen ez denik.

UKko lantaldea

egon ginen > Berangoko Ikastolako ikasle ohien argazkia



Klaseko argazkia egin dute 30 urte ondoren, berriro ere, Berangoko Ikastolako ikasle ohiek. Urriaren 11an elkartu ziren elkarregaz bazkaldu eta argazkia egiteko. Hiru hamarkadatan gehienek ez dute elkar ikusi eta irrikitan zebiltzan eguna noiz iritsiko. Berangoko Ikastolak 60eko urteetan funtzionatu zuen bost bat urtez, Franko bizirik zegoela, baina 1970ean itxi behar izan zuten, nahikoa ume ez zegoelako. Halere, ehun bat haur igaro zen Ikastolatik. Horien artean 60 bat lortu zuten elkartzea antolatzaileek, urriko bazkarian; hiru irakasle ere hurbildu ziren. UKko aurreko alean argitaratu genuen ikasleetako batzuek izandako solasaldia. Ikastolentzako garai latzak izanik, gurasoek ikastolan ikasteko eman aukera eskertu zuten.



Ileheriak eta ederrak... / ... gihartsuak, lirainak, basatiak, ameslariak... Munduko punta batetik bestera ibili ohi dira olatu bila. Filmetan eta Hondartzako zaindariak legezko telebistetan ikusi ditugu askotan, benetakoak ore ziren galdetuz, beste mundu batekoak bailiran. Bagenekien Uribe Kostan egon badaudela surfari asko, baina ospetsu horiekin zerikusirik ez zutelakoan begiratzen genien. Ezustekoa izan dugu, ordea, Sopolako hondartzan Kelly Slater eta gisakoak berako surfariakaz lehiatzen ikustean, egia baino, topiko eta literatura gehiago den seinale? / Argazkia: **Eduardo Camino**

Erosi euskaraz eta oparia jaso
kanpainaren bitartez Leioako merkataritzan
euskara sustatzeko laguntza ematen digutenei

Eskerrik asko!

LEIOA



ZABALDU EUSKARARI

Urta harategia-fruita denda
Dalton's taberna
Orixe Autoeskola
Maribe Estetika
Milabarri Arrandegia
Galtxagorri Arropa-denda
Saratxo Loteria-denda
Javier Tindategia

Kopi Leioa
Otsagi Arropa-denda
Linsay tindategia
Daniel Harategia
Txitoa taberna
Kurkudi taberna
Donibane Prentsa
Urta harategia-fruita denda



Iraganez doa denbora* beti / USATEGI PARKEA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > takun tan takun



Algortako San Nikolas plaza, 2008ko irailaren 27a

Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Ane Basagoiti**

1

Haltza, lizarra, gaztainondoa,
egur hutsezko bihotza,
belaki hezur malgu-malguak,
mahai gainean hilotza.
Ohol etzanak esan nahi badu
enborraren heriotza
kun, nola entzun daiteke, takun,
zuhaizen taupada hotsa?

2

Zaldi bi hasi dira galapan
astotxo biren gainean
apatxen hotsa emendatu da
hurbildu diren heinean.
Lehenaren trosta beti bera da,
beti erritmo berean,
bestea, aldiz, saltoka dator
jolas beteko bidean.

3

Euskal Herriko xilofonoa,
egurren talka askea,
ohitura zaharrak beti behar du
zuhaiz-oholtza gaztea.
Pozgarria da garai bateko
egur hotsaren ospea
neskato baten jolas-orduan
errotuta ikustea.

* Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

Uribitakoran parte hartu gura duzu?
Bidaliezaguzu atal honetan agertzea
nahi zenukeen argazkiren bat eta
bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

plentzia > aurten hasiko dira itsas estazioa egiteko lanak



Urriaren 3an sinatu zuten itsas estazioaren gaineko akordioa

Urriaren 3an sinatu zuten Juan Ignazio Perez EHUko errektoreak eta Isabel Zarauza alkateak, Plentziako sendategi txikian itsas estazioa egiteko hitzarmena. 2005ean BBKk doan laga zion Udalari, Gorniz eta Plentziako hondartzen artean dagoen eraikina, Itsas Estazioaren proiektua garatzeko. Urte bi beranduago, Itsasbaterreko Zuzendaritza Nagusiak sendategia itsas biologiaren eta ingurumenaren azterketa, eta esperimentaziorako zentro moduan prestatzeko baimena eman zuen. Eraikinaren egokitze lanak aurten hasiko dira eta urte bi barru amaitzea aurreikusita dago. 2500 metro koadrotik gora izango dute instalazioek, eta ur bolumen handiak erabiltzeko aukera emango dute. Horrek, gaur egun egin ezin diren ikerketak aurrera eramatea ahalbidetuko du. Bestalde, graduondoko prestakuntza eskainiko da bertan. ○

bertsolaritza > Uribe Kostako zazpi ordezkari Bizkaiko Txapelketan



www.ukberri.net web gunetik hartutako irudia

Bizkaiko txapela berrirori ere gurera ekartzeko aukera daukagu Uribe Kostan; izan ere, sei ordezkari izango ditugu urriaren 12tik abenduaren 20a arte burutuko den Bizkaiko Bertsolari Txapelketan. Jone Uria, Arrate Illaro eta Itxaso Paya algortarrak eta Peru Vidal leioztarrak batera, zuzenean finalaurretara joango diren Xabi eta Fredy Paya anaiak egongo dira. Horiekaz guztiekaz batera, ALBEko Josu Esnaola izango da gai-jartzaile. Bost kanporaketa eta hiru finalaurre biziko dituzte bertsolariak BECen ospatuko den final nagusia heldu baino lehen. Horietatik bat, abenduaren 7ko finalaurrea hain zuzen ere, Itzubaltzetako Santa Eugenia plazan jokatu da. Gogor animatu beharko ditugu gure bertsolariak; zorte on neska-mutilak! ○

saiaz getaria



HOTELA

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



..harria



...lehenengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

txalaparta jaia > V. edizioa joan zaigu ttakun hotsen artean



UKTEST Uribe Kostako Txalaparta Ekimenetarako Sustapen Taldeak antolatutako V. Txalaparta Jaiaeren berri emateko aukera izan ez bagenuen ere, bertan bildu zirenek sortutako giroa ekarri gura izan dugu UKko 145. aleko orrialdeotara. Nagusi zein ume, gizon zein emakume, denak batu ziren euskal kulturaren tresna garrantzitsua den txalapartaren inguruan. Musika sortzeko eta entzuteko, dantzatzeko, sukaldari finek egindako paella gozoa jateko, eta tailerretan parte hartzeko aukera izan zuen bertara hurbildu zen jende mordoak. Ttakun, ttakun... erritmoak kaleak bete zituen goiz eta arratsalde. Antolatzailerek eskerrak eman gura dizkiete laguntza eskaini zuten boluntarioei, zein hurbildu ziren lagunei, euren laguntza barik ezinezkoa zatekeelako V. Txalaparta Jaia ospatzea. Honez gain, datorren urteko irailean egingo duten edizioan, zein urtean zehar antolatzen dituzten tailerretan parte hartzera animatu gura dituzte. ○



Tailerrak, kontzertuak, herri-bazkaria, txalaparta-poteoa eta beste hainbat ekintza egon ziren San Nikolas enparantzara hurbildu zirenentzat.

[erretratua]



"Euskararen egoerari buruz berba egitean autoflagelaziorako tendentzia handia daukagu; baina arazoa ez da hori"

Iñigo Fdz. de Martikorena > ukberri.net guneko kazetaria

Koadernoa eta argazki-kamera eskuan duela ekitaldiz ekitaldi ematen du eguna Iñigo Fernandez de Martikorenak, eskualdean gertatutakoak albiste bihurtzen. Euskaldunon Egunkariaren itxieragaz batera sortu zen ukberri.net agerkari digitala: "Hainbat lagun bildu ginen pajeo oso ezberdinakaz. Agerkari digitala sortzea erabaki genuen, errazena zelako". Azken hiru urteotan web gunerako kazetari lanetan ibili da: "Jende asko ezagutzeaz gain, gauza interesgarri asko ikusten ditut. Txapa asko ere jan behar ditut". Euskaldun eta euskaltzalearen ikuspuntutik begiratzen du Itzubaltzeta, bere bizilekua: "Zoritzarrez Getxok A ereduaren Bizkaiko gotorlekua izaten jarruitzen du, hori ez da batere aldatu. Itzubaltzetan bertan ume analfabetoen sorlekua den eskola daukagu. Euskararen egoerari buruz berba egitean autoflagelaziora jotzen dugu; hein batean arazoa hori izan daiteke, baina egia da momentu honetan eta eskualde honetan ez daudela euskaraz bizitzeko baldintzak". Hala ere, bizilagunei buruz harro berba egiten du: "Ikaragarria da hain herri txikia izanda, gauzak egiteko dagoen gaitasuna. Bizitasunez betetako herria da gurea". Gehienetan beharrean ikusten badugu ere, badauka aisialdia gozatzeko aukera: "Lagunakaz zazpi-kaleetara hurbiltzen ez banaiz, sofán botata gelditzen naiz, katuakaz". ○ Argazkia: **Ane Basagoiti** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografía**

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Ariguo Goll - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Karteiak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
- ermarkaketak •



Udalerriko kultur etxe nagusia

“Kulturari, arteari eta elkarteei” begirakoa izango den **Santa Eugenia plazako auzo etxe** edota kultur etxe barriak **2011 ala 2012an** zabalduko ei ditu ateak, **7,5 milioi** euroko aurrekontua du

Getxoko Udal Gobernu Taldeak Santa Eugenia plazan lekutu duen kultur eraikin barriaren egitasmoa idazteko, eta lana zuzendu zein ikuskatzeko txostena martxan ipini du, eta berori sei hileko epean esleitu ahal izango dutela aurreikusi du.



Santa Eugeniako antzinako eskolak dauden lekuan altxatuko dute eraikin berria

Legegintzaldi honetarako Plangintzaren barruko egiteko nagusiztat aurkeztu du Gobernu Taldeak kultur eta administrazio azpiegiturari begirako eraikin barria, Santa Eugenia plazako gaur egungo kultur etxea bota ostean lotuko den orubean eraikiko dutena. “Auzo etxe barri hau udalerriko kultur etxe nagusia izango da; azpiegitura moderno eta potentzia, Kulturari, Arteari eta batez ere, Getxon dugun elkarte mugimendu garrantzitsuen beharrei dedikatua”, adierazi du Getxoko alkate Imanol Landak.

Eraikinaren ezaugarriak dagokienez, 4.000 metro koadroko azalera izango du, sotoa, 5 solairu eta atikoaren artean banatuta. Landak ondorioztatutakoaren arabera, gaur egungo eraikinaren azalera baino bost bider handiagoa edukiko du eraikin barriak. Solairuen banaketarako hurrengo aurreikusi dute: Sotoan, makinak, biltegia, aldagelak eta ekitaldi aretoa, arrapala mugikor baten bitartez goiko solairuko beste areto batez lotu ahal izango da; beheko solairuan, ekitaldi aretoaz gainera, harreragunea, erakusketa gela, Herritarren Arreta Bulegoa eta administrariaren bulegoak; lehenengo solairuan, nagusientzako eta umeentzako liburutegiak; bigarren solairuan, ludoteka eta erabilera askotarako gelak

(eskolak, ikastaroak, dantzak, multimedia etab.); hirugarren solairuan ikasteko gela, lantegiak eta kulturagunea (elkarrekin erabiltzeko gunea); laugarren solairuan, hitzaldietarako eta lantegietarako gelak, eta azkenik, atikoan musika, dantza eta abesbatza taldeen entseietarako aretoak. Eraikin osoa wifi gunea izango dela aurreikusi dute. Eraikin horretan egongo dira, behin-

«Eraikinak 4.000 metro koadroko azalera edukiko du, sotoa, 5 solairu eta atikoaren artean banatuta»

behinean, Nagusien Etxea eta Udal Euskaltegia ere, euren ohiko egoitzak zaharberritzen dituzten bitartean.

Auzo etxe edo kultur etxe barria egiteko 7,5 milioi euroko aurrekontua aurreikusi dute, eta Landak iragarritakoaren arabera

legegintzaldi amaierarako (2011) ala datorrenaren hasierarako amaituta egongo ei da.

Alabaina, ez dauzka denak guztiz bere alde egitasmo barriak. Oposizioko alderdiek, batez ere PPK eta PSEk, egitasmorako eurekin kontatu ez izana egotzi diote Gobernu Taldeari, eta aurrera eramateko finantziario-bideak zalantzak dituzte. ○

Datu batzuk

- **Azalera:** 4.000 metro koadro
- **Eraikina:** sotoa, 5 solairu eta atikoa
- **Wifi gunea:** eraikin osoan
- **Aurrekontua:** 7,5 milioi bat euro
- **Noizko:** 2011 edo 2012rako omen
- **Ordutegia:** egunero zabalik, aste akabuak barne.
- **Informazio gehiago:** www.getxo.net

Gobelaurre parkeko

egitasmoaren gaineko adierazpen eta iritzi barriak



Gobelaurre parkearen gaur egungo irudia

Irailaren erdialdean aurkeztu zuen Udal Gobernu taldeak Gobelaurre parkea legez ezaguna den Erromoko Txabari Zuazo parkea zaharberritzeko egitasmoa. Orduetik eta gaur bitartean hostoak ere erdoiltzen hasi dira udazkenari ongietorria eginez. Egitasmoagaz alderatuz, herritarrek proiektua ezagutzeko, eta horren gainean iritzia emateko aukera izan dute, PP eta PSE alderdiek finantziarioari oztupoak ipini dizkiote, alegazioak jarri...

Egitasmorako Gobernu Taldeak (EAJ) 1,8 milioi euroko aurrekontua aurreikusi du, datorren udarako lanak guztiz amaituta egongo dira. Bitartean, iraileko Udalbatza egin zen, eta bestelako kontuez gainera, PP eta PSE alderdiek egitasmo hori martxan ipintzeko ekonomibaliabideak bideratzearren kontra bozkatu zuten. Horri erantzunez, Getxoko alkate Imanol Landak bi alderdiok finantziarioari

jarritako oztupoak gaintu, eta proiektua egin egingo duela adierazi zuen, Santa Eugeniako kultur etxean ikusgai egon den egitasmoaren erakusketa lehenengo egunean. Bestalde, oraintsu arte ikusgai egondako erakusketa ezagutzera jende andana hurbildu dela jakinarazi dute udal prentsa bulegotik, lehenengo egunean 300 pertsonatik gora.

Egitasmoak 6.200 metro koadroko parkea 3 alde nagusitan banatzen du: hainbat kirol jardueratarako gunea (gazteei begira, futbol-saskibaloia zelaia etab. izango dituen) umeentzako jolasgunea, eta gimnasio aparatuz hornitutako eta petankan jolasteko gunea (nagusientzat). Horren albotik, inguruan gazteek kirol jardueratarako azpiegitura nahiko dituztela argudiatuz, PPK umeen gunea zabaltzeko alegazioa aurkeztu du. Hala, urriaren 31ko Udalbatzak zer barri ekarriko duen zain lotu behar... ○

ALGORTAKO “GAUEGUN” GAZTELEKUKO LANAK LASTER HASIKO DIRA

Hurrengo hileetan hasiko dira Urgul kaleko Gauegun Gaztelekuko lanak. 9.000 euro inguruko aurrekontua duen proiektua, bai espazioen banaketari, bai alderdi estetikoek dagokienez, orain dela urte pare bat azpiegitura definitzeko prozesuan parte hartu zutenek (heldu zein gazte) ezarritako irizpideei egokituko zaiela azaldu dute Udaletik. 12 eta 17 urte bitarteko gazteei begirakoa izango da gaztelekua, negu amaierarako zabalik egon liteke.

UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOA BULTZATZEKO PLANA

Getxoko Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) udalerrian Merkataritza, Ostalaritza eta Turismoa sustatzeko plana egingo dute. “Horren bidez, udalerrian kokatuta dauden, edo kokatuko diren, enpresetan negoziario aukera gehiago eta hobeak sortzen laguntzen ahaleginduko gara eta horrela, herritarrentzat, lanpostu eskaintza handitzeko aukera zabalduko dugu”, adierazi dute udal arduradunek. Alderdi honi ere Getxo marka eranesteko asmoa dute. Planaren lehenengo zatia (3. sektorearen egoeraren datuak batu, diagnostikoa egin etab.) urte amaiera bitartean egingo dute. Hortik sortuko da Getxoko Merkataritzaren 2009-2011 plan estrategikoa, lehiakortasuna eta jardueraren hobetzeko ekintzak batuko dituen.

EREAGAKO ERAIKINARI KRITIKA TXARRAK

El Correo Español egunkariak jakitera eman zuenez, Getxoko 300 bat auzotarrek Ereagan eraikiko den erabilera anitzeko eraikina egitearen kontra idazkia sinatu dute. Bestalde, PSEk “Ereagako bunkerraren” gaineko iritzia emateko aukera ez emateagatik herritarrek “marjinatu” dituela adierazi du; eta PPrentzat eraikina “aberrazio, zentzugabekeria” da.

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1 • ALGORTA



Xabier Monasterio > Euskal filologoa; ikastaroaren gidaria

“Ikastaroaren izenak laburbiltzen dituen euskararen bi ikuspegiak jorratzea da asmoa”



Ikastaroa hasita dago dagoeneko eta abendura arte iraungo du. Irudian, Xabier Monasterio

Getxoko Udalgaz elkarlanean Deustuko Unibertsitateko Kultur Aisia programak “Hizkuntza zahar, hizkuntza berri (Euskararen berri)” euskararen gaineko ikastaroa (aurten estreinako aldiz) eskainiko du. Euskal filologo, itzultzaile, idazle, Bilboko Hiria irratiko esatari, Gabriel Aresti euskaltegiako irakasle Xabier Monasteriok eskainiko du ikastaroa.

—Zertaz dihardu ikastaroak?

—Ikastaroaren izenak adierazten dituen euskararen bi ikuspegi horiek jorratzea da asmoa, nahi duguna, hau da: antzinako hizkuntza bat daukagula euskaldunok, seguruenik haitzuloetan hartu genuena edo sortu zena, gure arbasoengandik belaunaldiz belaunaldi gaur egungo mundura arte heldu dena; eta bestetik, aurrera egin behar dugula. Horretarako gure historiaren berri ere jakin beharko genuke; nire ustez, gehiegi sartzan gara corpusean, arauetan-eta, kontuan hartu gabe hizkuntzak beste sinbologia, balio batzuk ere badituela, historiatik datozenak; horiek ere eman behar zaizkio jakitera jendeari. Gero, mito asko daude: euskararen jatorria-eta... Horiek guztiak gainditzeko ahalegin bat izan nahi du ikastaro honek.

—10 egunetarako ez al da gaitegi zabalegia?

—Bai, dudarik gabe. Atal bakoitzak berez beharko luke halako ikastaro berezia. Baina, hauek dibulgazio orokorreko ikastaroak dira, helburua da nolabait gai sorta bat erakutsi eta euskararen barneko mundu horien lehen erakusbide bat eman. Nolabait esan, bisita-txartela besterik ez da, pentsa ezina da ordu eta erdian gai bakoitza eman eta agortu daitekeenik; baina aditzera eman daiteke, bada-goela euskararen gramatika baino askoz gehiago, euskal zibilizazio osoa sartzan dela hor...

—Programako euskararen gaineko lehena da. —Nik dakidala bai. Iruditzen zait euskaldunok beti berantiarrik izaten garela gauza hauetan; halako gurdia-eta pasatzen diren-an beti azkenak izaten gara igotzen; berandu bada ere, hau ez dugu galdu, eta pentsa deza-

gun hemendik aurrera gehiagotan ibiliko garela. Bestalde, kritika alde bietatik egin daiteke; erakunde batek halako ikastaroak antolatzen dituenean, beti ere masa kritikoari begira, erdarari ematen zaio lehentasuna; baina, herri honetan badaude bestelako lehentasunak, euskarak horretan eduki beharko luke lehentasuneko trataera bat erakunde guztien aldetik.

—Zenbat Gara-ko kide, irratiko esatari, euskaltegiako irakasle... Euskarak Bilbon dituen erronkak ondo ezagutuko dituzu?

—Zorionez edo zoritxarrez, bai. Esango nuke Bilbo dela seguruenik Euskal Herriko herririk euskaldunena, hala ez badirudi ere;

«Euskararen gramatika baino gehiago badago... zibilizazio osoa sartzan da hor»

kopurutan neurtuta bagarelako 60.000 bat euskaldun, eta oso gutxi dira hainbeste euskaldun dituzten herriak. Horiez gain, beste asko dira euskararekin noizbait nolabaiteko kontaktua eduki dutenak. Erronkarik handiena erabilerarena da, Euskal Herri osoan bezala. Askok gara dakigunok, baina hitz egiten dugunok ez hainbeste. Ezin zaio hiztun soilari horren erru guztia egotzi, nik uste dut horretarako benetako planak egin behar direla, Zenbat Garan aspaldi gabiltza hori bultzatu nahian, gure apalean. Sumatu dugu aukerak emanez gero, Zenbat Garatik eman ditugunean behintzat, jendearen erantzuna paregabea dela, benetako zirkulu euskaldunak sortzen direla; adb. Kafe Antzokia. Euskarak heldu beharko liokeen erronkarik handiena trinkotzea da; Bilboko euskaldunok elkar identifikatzea, gune erreferentzialak topatzea; eremu elebakarrak sortzea gure espresibitate, beharrian sozial eta kultural guztiak bertan bete ahal izateko. ○

Ekitaldi andana

Iparra Galdu Gabe III. jardunaldiak urriaren 24a eta azaroaren 9a bitartean



“Batek mila, euskal munduak” erakusketako irudia. Informazio gehiago: 94 466 00 10

Euskal mendebaldea, noizean behin behintzat, euskal ekialdeaz gogoratzen delako; hegoaldeak iparra gal ez dezan... Bi urterik behin Euskal Herriko “iparraldea” Getxora hurbiltzeko ahalegina egiten dute Udala Euskara Zerbitzuak eta EKEk (Euskal Kultur Erakundeak), Iparra Galdu Gabe jardunaldiak antolatuz. Ekimenaren barruan hurrengo ekitaldiak daude iragarrita: “Batek Mila, Euskal Munduak” erakusketa (hilak 24- azaroak 9; Algortako Geltoki plazako karpa); Pantxo Echegoien “Euskara Ipar Euskal Herrian” hitzaldia (hilak 24, 19:00; karpa), Panpi Olaizolaren “Ipar Euskal Herriko Mendiak

hurbilgotik” berbaldia (hilak 30, 20:00; Villamonte); Kiki Bordatxogaz erromeria eta Atfal elkarreagaz txixi-burruntzia (hilak 31, 19:00; San Nikolas plaza); Ipar-Hegoa musika emanaldia Elaudi Hazparne eta Itsasuko taldearen eta Ken Zazpi talde gemikarraren kontzertuak (azaroak 1, 20:00; Getxo Atzokia; 5 euro); My Jok kolektiboaren Burp Underground Report bereziki gazteei zuzendutako dokumentala (azaroak 4, 20:00; Villamonte); Koldo Amestoy ipuin kontalaria (azaroak 6, 18:00; Villamonte) eta Altxangako mendi ibilaldia (Saratik; autobusa Getxotik goizean; hilak 9, 08:00; 3 euro). ○

SENDI EKIMENAREN EKITALDIK MARTXAN

A, B, D ikas-erreduetako 2 eta 12 urte bitarteko udalerriko ikasle guztien gurasoei begirako ekimena da EGIZUK eta Getxoko Udalak bultzatzen duten SENDI programa; udalerriko umeen gurasoek euskara erabiltzea sustatzeko eta belaunaldien arteko hizkuntza transmisioan eragiteko helburua duena. Ikasturteko honetarako hainbat ekimen ipiniko ditu martxan, esaterako: sukaldaritza, jolasak, eskulanak eta kirola egiteko ikastaroak; musika lantegiak, ipuin kontalariak, bisita ludiko-kulturalak eta familia osoarentzat mintza-praktika egiteko gurasolagun taldeak.

Informazio gehiago: 685 73 29 63

SGAERI BESTE 44.000 EURO ORDAINDU BEHAR

Bizkaiko Probintzia Auzitegiak plazaratu barri duen epaiari men eginez, Getxoko Udalak 44.000 bat euro ordaindu beharko dizkio SGAeri (Egile eta Editoreen Elkarteak) 1997 eta 2005 urte bitartean herriko jaietan antolatutako berbenetako egile eskubideak ez ordaintzeagatik. Kultura zinegotzi Koldo Iturbek adierazi legez Udalak eta Kultur Etxeak antolatutako musika ekitaldiei dagozkien egile-eskubideengatik egin beharreko ordainketak eguneratuta dituzte, 2002 urteaz geroztik 165.000 euro inguru ordaindu dizkio Udalak SGAeri. Alabaina, Iturbek argitu duenez “Udala ez da herriko jaiak antolatzen duena, auzoetako jai batzordeek dute horren ardura, eta horrengatik azken horiei dagokie SGAeri ordaintzea berbenen egile eskubideak”.

GIZONEZKOENTZAKO IKASTAROA

Berdintasunerako Udal Zerbitzuak eta Nagusien Etxeak jarraipena emango diote 55 urtetik gorako gizonezkoen programari, eta osasunaren eta norberaren burujabetzaren arloan autolaguntza lantzeko “Norbere zainketa eta etxea antolatuzko gizonezkoen begirako lantegia antolatuko dute azaroaren 4tik aurrera (izen-emate epea zabalik).

Izena emateko: 94 466 01 50



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Maite Calvo > Droga-menpekotasunaren prebentziorako teknikaria

“Egoera aztertu, eta irakasleak bideratzen ditugu ikasturtean zehar ikasgelan behar egin dezaten”

Hamar urte daramatza Maite Calvok droga-menpekotasunaren prebentziorako beharrian herrian. Ikasturte honetatik aurrera, ordea, teknikari izango da. Gaian sakontzeko aukera emango dio Leioan iraunkor egoteak.



Maite Calvo bere bulegoan

—Lanpostua estreinatu berri duzu.
—Bai, baina urte asko daroagu Leioan lan egiten, neuk kudeatu dut lanketa azken hamar urteotan.
—Zer egiten du droga-menpekotasunaren prebentziorako teknikari batek?
—Eskolaz behar egiten dugu batez ere. Droga-menpekotasunaren prebentziorako programak daroaguz eskolatar; osasun hezkuntzaren barruan kokatuta daude. Lau egitasmo dauzkagu. Lehenengoan, prebentziorako programak kudeatzen ditugu lehen heziketako eskoletan. Bigarren egitasmoa gauza bera da, baina bigarren hezkuntzan. Hirugarren proiektuan familiak lan egiten dugu, eta orientazioa zein informazioa eskaintzen diegu. Eta azkenik, prebentzio programa selektiboa daukagu, arrisku egoera handiago den nerabeak lan egiteko.
—Beraz, eskolatan lan egiten duzue.
—Bai, Leioako eskola guztietan. Lehen eta bigarren hezkuntzan, bakoitzean alderdi desberdinak lantzen ditugu. Txikiakaz preben-

tzio ez espezifikoa egiten dugu. Hau da, garapen pertsonalagaz, motibazioagaz zein trebetasun sozialagaz lotutako gaiak jorratzen ditugu. Bigarren hezkuntzan espezifikoagoa da, eta zerbait drogari buruz ere aritzen gara.
—Zuzenean egiten duzue?
—Egoera aztertu, eta irakasleak bideratzen ditugu; materiala ematen diegu, programa osatzen dute ikasturtean zehar lantzeko. Nik gero, tailer informatiboak ematen ditut bigarren hezkuntzan, irakasleen lana osatzeko.

—Eta beste programak, nola lantzen dituzue?
—Familien kasuan, gurasoentzako eskolak antolatzen ditugu gurasoen elkartean bitartez. Ikasleak lantzen ditugun gai beretsuak jorratzen ditugu. Prebentzio selektiboa, berriz, lanbide-heziketa eskolatan lantzen dugu. Ikasleak nagusiagoak dira, drogen kontsumo-maila altuagoa da, eta arriskua murrizteari begira lan egiten dugu. Besteetan legez, irakasleen bitartez egiten dugu. ○

Kategoria estreinatu

du Leioa Saskibaloit Taldeko emakume nagusien taldeak, iaz mailaz igo ostean



Taldekoko jokalariek, entrenamenduan

Bizkaia txiki dute Leioa Saskibaloit Taldeko emakumeen talde nagusiko jokalariek. Iazko ikasturte amaieran postuan gora egin zuten, eta aurten Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Errioxako taldeakaz ere lehiatuko dira. Pozik daude jokalariek, baina beldurrez, oraindik ez dakite eta, zelako maila dagoen. Izan ere, nahiko talde gaztea osatzen dute, gehienek hogeitau urte inguru daukate, eta maila bereko jokalariek nagusiagoak dira, 30 bat urtekoak.
“Izugarria izango da niretzat”, aitortu zuen Diana Venegas jokalarietako batek, urri hasierako entrenamenduetako batean. “Suposatzen da hobeak garela, baina hori suposatu baino ez da egiten, ezpabere badirudi ia-ia guztia bardina izango dela”. Venegasegaz eta Eider Elkoroaristizabalegaz

berba egin genuen eta bere esanetan, “suposatzen da maila nagusiagoan gaudela eta beti duzu gustuko jakitea zuk zein mailatan joka dezakezun, zein kategoriatan eman ahal izango duzun maila”. Urduri dago, partidak jokatzeke irrikan. “Ondo jokatu gura dugu, barregarri geratu barik”, esan du.

Gonbidatuta igo dute maila. Jokalari biek azaldu dutenez, liga osoan lau talde ibili ziren lehen postuetan, eta azken asteburuan, lehenengo gelditzeko ala ez jokatu zuten, baina partida galdu zuten. Gero, partida bateko aldean ibili ziren beste hiru taldegaz batera, eta laugarrenak lotu ziren. Kontua da plaza gehiago zeudela, eta beraiei eskaini zieten; baita hartu ere. Kantxara atera behar orain, baitz maila ona erakutsi! ○

JOLASLEKUAK MINUSBALIAK DITUZTEN UMEENTZAT

Minusbaliak dauzkaten umeentzako egokituta dauden jolaslekuak jarriko ditu Udalak laster. Eredu biren artean aukeratu behar du, ordea: gailu guztiak egokituta izango dituzten jolaslekuak egin, ala egungo jolasleketan egokituta dauden gailuak jarri. Ume guztiak jolaserako aukera berberak izan behar dituztela esan du Udalak.

PINUETAK BADAUKA KULTUR ETXE BARRIA

Abian da Pinueta auzoko Kultur Etxeko areto barria, Nafarroa eta Maiatzaren Bata kaleen artean. Orain arte Lapurdi kalean egon da, nagusien etxeagaz batera. Azken hori handitzeko aldatu du Kultur Etxea. Lokal barriak 115 metro koadro dauka, eta bertan kokatu dituzte ludoteka, ikasi edota eskulanak egiteko gela, erabilera anitzeko gela eta internet gunea. Areto Nagusia Lapurdi kalean mantenduko du. Udalak 350.000 euro gastatu du aretoan, horietatik 222.000 lokala erosteko.

UDALETXEA BARRITZEN DABILTZA, UDALTZAINGOARI LEKU GEHIAGO EGINGO DIOTE

Hirigintza arloa udaletxeko eraikinetik atera eta handik gertu eroan dute, Auzo Etxera, udaletxean egiten ari diren birmoldaketa dela eta. Horrela, Udaltzaingoaren aretoaren neurria bikoiztuko dute beheko solairuan. Baina udaletxe osoa barrituko dute, erabiltzeko errazagoa izan dadin moldatzeko. Alderdi politikoen eta sindikatuen bulegoak azken solairuan daude. Beste hainbat bilera areto eta bulego egingo dituzte, baita altzariak aldatu ere. Guztira 360.000 euro gastatuko du Udalak. Gainera, etorkizunean eraikinaren fatxada barritzeko asmoa dute. Gabonen ondoren amaituko dituzte lanak.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

[erandio]

Elena Irusta > Artisautza Zentroko langilea

“Gune egonkorra da, Bizkaiko artisautzari alternatiba bat eskaintzeko”

Ondarearen Europa Jardunaldiak egiten dabilta Bizkaiko hainbat herritan, Erandio tartean. Zehazki, Artisautza Zentroan bisita gidatuak egin zituzten urriaren 11n, eta aitzakia horregaz bertaratu gara, gunea ezagutzeko. Elena Irustak lagundu digu.

—Noiz eta nola sortu zen artisautza gunea Erandion?

—2005eko azaroan zabaldu genuen. Artisau biren ideia izan zen, Jon Alberdi eskultore eta errementariarena, eta Jesus Lizaso zeramikari eta eskultorearena. Txikitatik ezagutzen zuten elkar, basauriarak biak. Artisautza gunea egonkorra egitea otu zitzaion Alberdiri, Bizkaiko artisautzari alternatiba bat eskaintzeko. Horrela sortu zen gunea. Kaleko salmentara mugatzen zen artisautzaren eremua gainditu gura du, eta kutsu modernoan eman gura dio alorrari.

—Zer topatuko dugu?

—Diziplina anitzeko gunea da. Batetik, galeria eremua dago. Batez ere forja lanak dauzkagu bertan, horretaz gain badazkagu hiru beirate eta ebanisteria ere, beira, zeramika eta egurrez egindako lanak. Gainera, arte galeria daukagu; artisautza guneko berrikuntza da hori. Artisautza eta artea elkarregaz bizi daitezten ari gara, eta hori ez



Elena Irusta Artisautza Zentroan

da ohikoa, bikote zaila osatzen baitute. Bestetik, ikastaroak eskaintzen ditugu. Udalgaz hitzartuta egiten dugun kontu bakarra da, baina Erandioko nahiz herritik kanpoko lagunek parte har dezakete, prezioan dago alde bakarra. Ikasturte honetan landuko ditugu egurra, larrua, pintura eta marrazketa, eskulanak eta zaharberritzea. Goizez edota arratsaldez dira, ikastaroaren arabera. Zeramika eta beirateak egiteko tailerrak egiteko asmoa geneukan, baina ez du

izena eman ikasle nahikoak. Beno, beirateena kolokan dago, aterako da agian.

—Artisauek bere kabuz lan egiteko lekuak ere alokatzen dituzue bertan.

—Bai, baina inork ez du alokatu ondino. Batez ere hainbat margolarik galdetu du leku horiengatik, baina garesti deritzote.

—Zelako harrera jaso duzue?

—Guneak harrera ona izan du, baina galeria ahulago dabil beste alorrak baino. Tailerrak eta erreminteria ondo dabilta. ○

Juanene plazako arrailak

Udalak dio **urtea amaitu aurretik** esleitu gura dituela lanak, baina auzokideak kexu dira



Astrabuduko Juanene plaza

Astrabuduko Juanene plazako auzokideak haserre daude Udalgaz, plazako egoera dela eta. Horregatik galdegin diote “auzokideokaz hartutako konpromisoak betetzeko, eta Juanene eraberritzeko lanak berehala hasteko”, plazan eta aldameneko portaletan pitzadurak eta zuloak agertu baitira. Asier San Nicolas Hirigintza zinegotziak jakinarazi du urtea amaitu baino lehen esleitu gura dituztela konponketa lanak. Haren iritziz, kalteak ez dira larriak, normalak dira, ez dago eraikintzako arriskurik. Arazoak aspaldikoak dira, eta eraikinen finkapenean dute jatorria.

Ingurunea oinezkoentzako jarriko

dute, lorategiakaz, Udaletxeak zonalderako eratu duen egitasmoak jasotzen duenez. Egun, kontrolik gabe aparkatzen dituzte autoak bertan, baina hori egitea arriskutsua dela azaldu du Hirigintza zinegotziak, “suhiltzaileek eta anbulantziek igarobiderik ez dutelako”. Hori dela eta, gunea egokitzeko egitasmoan zer egin galdetu diote berrehun auzokideri.

Zinegotziak jakinarazi du itaundu dituztenen %80k lorategidun gunea egitearen alde egin zuela, aparkalekuak barneratzen dituen proposamena alde batera utziz. Auzokideek konponketak al bait arinen egitea gura dute. ○

LUTXANAKO ESKOLETAN URTEROKO TAILERRAK ABIATU DITUZTE

Keli taldeak antolatu ohi ditu urtero tailerrak Lutxanako eskoletan, eta jadanik, ikasturte barria abiatu dute. Urriaren bigarren astean ekin zieten yoga eta aretoko dantzak ikastaroei. Batean izena emanez gero, hilean 10 euro ordaindu beharko da, baina ikastaro bietan parte hartuz gero, 15 euro baino ez. Yoga martitzenetan egiten dute, eta aretoko dantzak egunenetan, 20:00etatik aurrera.

Informazio gehiago: 94 476 14 93

ENERGIA AURREZTEKO ETA GARBIKETARAKO PROPOSAMENAK EGIN DITU PSE-K

Hainbat proposamen egin ditu PSE-EEko udal taldeak, bata energia aurrezteari buruzkoa, eta bestea kaleen garbiketari buruzkoa. Lehen egitasmoan udal eraikinetan energia aurrezteko plana osatu gura dute, elektrizitate kontsumoa gutxitzeko helburuagaz. Herriko Jasangarritasunerako Ekintza Plana gisako egitasmoa burutzea jasotzen duela gogorarazi du PSE-EEK. Bigarren proposamenari dagokionez, herriko hainbat kaleren garbiketa osorako plana hasteko eskatu dio Udalari, “txakurren kakaleku bihurtu direlako”. Horrekin batera, altxatuta dagoen tokietan putzuak sortzen direla gehitu du PSE-EEK, baita eraikin batzuen aurrealdeetan askatzeak gertatzeko arriskua dagoela ere.

URRIAN ERE, GAZTE GUNEKO IKASTAROAK

Urriaren bukaeran eta azaroan ere ikastaroak eskaintzen jarraituko du Gazte Bulegoak. Xaboi, eskulan, graffiti, henna, astialdiko begirale edo zuzendari eta euskarazko software libreaki buruzko tailerrak izango dira.

Informazio gehiago: 94 602 58 91 edo gazteinfo@erandioko-udala.net



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

ETXEKO KONPOSTAJEA EGITEKO BIGARREN KANPAINA ABIATU DUTE

Urriaren 31ra arte egin daiteke eskaera etxeko konpostgailua eskuratzeko. Uribe Kostako Mankomunitateak ehun ale banatuko ditu. Hainbat baldintza bete beharko dituzte konpostgailua jaso gura dutenek: konpostgailua jartzeko lur-eremua izatea, konpostajeari buruzko hitzaldi teoriko-praktikora joatea, erregistro batean jasotzea zenbat gai organiko bota den konpostgailura eta handik zenbat konpost lortu den, eta gai organikoaren edukiontzietara inausketa-hondarrak ez botatzeko konpromisoa hartzea. Baina bizkor ibili beharko dute, kupoa bete ondoren jasotzen diren eskariak itxaron-zerrendara pasatuko baitira.

Informazio gehiago: 94 676 26 74 edo
www.uribekosta.org

ZABALDU DUTE BARRIRO BIDEBIETA KALEA, LANAK AMAITU OSTEAN

Gorotzen saneamendu hodia konpontzen ibili direla Bidebieta kalea moztuta egon zen aste bitan. Baina lanak amaitu eta jadanik zabalik dago barriro. Urriaren 8an amaitu zuten 60 metroko hodia konpontzen eta kalea asfaltatzen, baina zenbait egun behar izan zituzten horren ostean, 1, 3, 5, 7 eta 9 zenbakiak hartzen dituen eraikinaren euri-jaitsierak konpontzeko. Lan biek 25.000 euroko aurrekontua eduki dute.

6.000 LAGUN HURBILDU ZEN GURE MERKADILLORA

Pozik daude merkatariak "Gure Merkadillo" ekimenaren emaitzagaz, 6.000 pertsona igaro baitzen bertatik ekimena egin zuten asteburuan, iraileko azkena. Sopeloztarrak erosketak herriko komertzioetan egitera bultzatzeko helburua izan du ekimenak, eta aurtengo arrakasta ikusita, errepikatze prest daude antolatzaileak.

Euskal jolasak ikastera

Seme-alabakaz jolasteko beste bide bat edukiko dute gurasoek, euskal jolasen ikastaroari esker



Gurasoak eta umea elkarrengaz jolasten Sopelako parke batean

Gurasoek badaukate aukera euskaraz jolasteko seme-alabakaz. Izan ere, hainbat euskal jolas eta kanta irakatsiko dizkiete "Jolas taillerak eta kontu txikiak" ikastaroan. Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta Sopelako Udaletxeak antolatu dute.

Beraien iritiz, agerikoa da umeek askotan jolasten dutela gaztelaniaz, eta arrazoi bi aipatu dituzte. Bata, euskal jolasak ezagutzen ez dituztela, eta bestea, gaztelaniazko jolasik euskaraz egiten ez dakitela. Horregatik, seme-alabakaz euskaraz jolasteko balibideak eskaini gura dizkiete gurasoei. Euskaraz

emango dute ikastaroa, baina euskaldunak ez direnentzako azalpenak ere eskainiko dituzte gaztelaniaz.

Ander Deuna ikastolan eta Zipiriñe ikastetxean egingo dituzte urriaren 29an eta azaroaren 5ean, 12an, 19an eta 26an, 18:00etatik 20:00etara, eta haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute, behar duenarentzat. Parte hartu gura dutenek 12 euro ordaindu beharko dute, baina ikastaroa behin amaituta, dirua itzuliko diete gutxieneko asistentzia bete dutenei. Urriaren 24ra arte eman daiteke izena Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan edota ikastetxe bietako batean. ○

Udako bisitariak

Euskal Herrikoak izan dira uda honetan Sopela bisitatu duten turistarik gehienak



Joan den udan ia 6000 lagunek bisitatu dute herria

Gozoa da itsasoko brisa, eta gustuko dituzte askok Sopelako olatuak. Joan den udan ia 6.000 lagunek bisitatu dute herria, hala jakinarazi du Udalak. Horiak dira Turismo Bulegora eta Larrabasterrako informazio gunera hurbildu direnak, eta Euskal Herrikoak dira gehienak, 2.418 pertsona. Sopeloztarrek ere bisitatu dituzte bulego biak, 1.602 lagunek. Beraz, Sopelak barne turismoa bizi duela esan liteke. Euskal Herriatik kanpoko turistak ere hurbildu dira, halere, eta ez gutxi. Kanpotik 1.768 bisitari iritsi dira ekainaren 14a eta irailaren 14aren artean.

Larrabasterrako informazio gunea izan da bulego bien artean bisitatuena. Baina udaletik gogorarazi dutenez, Turismo Bulegoa urte osoan egon ohi da zabalik. Horregatik ere, ohi-turagatik, sopezlotarrak gehiago hurbildu dira turismo bulegora, eta gainontzekoak, informazio bulegora.

Ekainean jadanik jende ugari iritsi zela ere jakinarazi dute udaletik. Udak aurrera egin ahala, gainera, bisitari etorrera handituz joan da. Uztailean eta abuztuan hurbildu dira gehienak, bakan batzuk gehiago abuztuan, ohi legez.

Bestalde, surfagaz estuki lotutako herria izanik, Larrabasterrako informazio gunea presentegon da nazioarte mailako kirol txapelketa eta proba guztietan. Horiak izan dira Joko Atlantikoak, Island Style Pro Junior surf eta Sopelana BBK Pro bodyboard txapelketak, berbarako.

Eta udako denboraldia amaitu arren, agurtu barri dugun Billabong Pro Mundaka munduko surf txapelketan ere, bertan egon da informazio gunea. Munduko txapelketaren barne-

Sopela ezagutzera ematen lagundu du munduko surf txapelketak

ko proba Mundakan egin ohi dute, baina han olatu gutxi zegoela eta, Sopelan ekin behar izan zioten txapelketari irailaren amaieran. Munduko surf larrik onenek irrist egin zuten herriko olatuen gainean. Sopela munduko hainbat txokotan ezagutzera ematen lagundu zuten txapelketaren hasierak. ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

**LAIKAK
Taberna**

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

BERBALAGUN EGITASMOAN TALDEA OSATU GURA DUTE

Uribe Kostako Mankomunitateak eta Urtxintxa Eskolak Berbalagun egitasmoa abiatu zuten iaz. Helburua euskara praktikatzeko da, euskaraz berba egiteko ohitura duten pertsonak eta ez dutenak elkartuz. Iaz 60 lagunek parte hartu zuten, baina Berangon ezin izan zuten talderik osatu, nahiko jende ez zegoelako. Ea aurten lagun gehiago ausartzen den!

Izena emateko: 94 676 26 74/ 605 77 35 41 edo berbalagunuribekosta@hotmail.com

COSME NAVEDA OMENDU DUTE, 25 URTEZ HERRIAN MEDIKU ARITU DELAKO


Berangoztarren mediku 25 urte daramatzala eta, omenaldia jaso zuen Cosme Navedak urriaren 12an; Udal Frontoian, herri bazkaria egin zuten ondoren. Nevada Iguualtorio Mediko Kirurgikon ere badabil mediku, eta Bizkaiko Medikuen Kolegioko presidentea da, baina Berangon garatu du bere karreraren zati handiena.

ATLETISMOAREN IZARREK PARTE HARTU ZUTEN NAZIOARTEKO MILIAN

Beijingo Joko Olimpikoetan izan ziren zazpi kirolarik parte hartu zuten urriaren 4an Berangoko XXI. Nazioarteko Atletismo Milian, emakume bik eta bost gizonek. Margarita Fuentes Pilak irabazi zuen eliteko emakumezkoen kategorian (5 minutuan egin zuen), eta Mekonnen Grebemedhinek, gizonezkoetan (4,20 minutu). Fuentes Pilaren atzetik iritsi zen Leah Jerotich, eta haren ondotik, Iris eta Zulema Fuentes Pila, biak irabazlearen ahizpak. Horiek biak finalista izan ziren Beijingen. Gizonezkoen kasuan, berriz, irabazlea iritsi eta segundo bakarrera ailegatu zen Rui Silva. Hirugarren lotu zen Eliseo Martin.

Umetxoek badute eskola

Bi urte arteko umeentzako haurreskola barria beteta dago



Eskolako irudia

Santo Domingo de Guzman eskola barruko eraikin batean zabaldu zuten Berangoko haurreskola irailaren 4an. Beraz, bi urte arteko umeek badute eskola azkenean. Aspaldiko hutsunea zen, eta antza, Udalak haurreskolaren benetako beharra somatu du, sei gelak bete baitira matrikula egiteko epea agortu baino lehen. D eruduko eskola da, eta guztira 40 ume hartuko ditu, baina beste hainbat itxaron zerrendan ipini behar izan dituzte.

Bada, lanpetuta ekin diote ikasturteari haurreskolako hezitzaileek. Alexia Rodriguez da koordinatzailea, eta irailaren lehenean iri-

tsi zen eskolara, beste zazpi hezitzaileak batera. “Eskola zabaldu baino hiru egun lehenago heldu ginen eta presaka ibili gara”, aitortu dio UKri. Gainera, hasieran eskola hutsik zegoela azaldu digu. “Material eskasa dago eta hezitzaileok ahal izan dugun moduan aurre egin behar izan diogu, ikasturte hasiera aurrean ateratzeko”. Beraien partetik ahal zuten guztia egin dutela zehaztu du.

Hasiera “gogorna”, baina daborduko lasaiago ei dabilta, aurrekontua birpasatu eta material gehiago ekartzeko asmoa baitute. Antza, materialaz gain, pixkanaka edukiz hornituko dute eskola. o

Rakel Delgado > *Feminitatearen labirintoa* egitasmoa

“Emakumeok gure arazoan jabe izan behar dugu; hori da lehengo pausoa”



Rakel Delgado, *Feminitatearen labirintoa* egitasmoaren arduraduna

Urriaren 14ean izan zen *Feminitatearen Labirintoa* egitasmoaren lehengo bilera. Rakel Delgado, Mankomunitateko Drogo-menpekotasunen prebentziorako teknikaria, koordinazioaz arduratuko da.

—**Nola sortu zen egitasmorako ideia?**

—Guraso eskoletatik sortu zen ideia. Zortzi urtez egon ginen horiek antolatzen; baina, 2007an konturatu ginen, emakumeak zirela zerbitzu hori eskatzen zutenak. Eskolen ideari erreparoa egitea erabaki genuen, eta hortik etorri zen *Feminitatearen Labirintoa*. Guraso eskoletan lantzen genituen zerbitzu berberak lantzen ditugu, baina emakumeei bideratuta.

—**Ama diren emakumeentzako egitasmoa da orduan?**

—Ez. Ama izan ala ez, emakumeak izateagatik zaintzaileak gara. Gure beldurrak antzekoak dira beti; berdin du seme-alabak, gurasoak edo gaixoak zaindu behar izatea. Adin eta familia egoera oso ezberdinetako

emakumeak batzen dira, horrek asko aberasten du egitasmoa.

—**Zelan funtzionatzen duzue?**

—Urdulizko Kultur Etxean bilduko gara; guztira 12 sesio izango dira, eta hirugarrena arte izena emateko aukera egongo da. Horietan emakumeek lotutako gaiak landuko ditugu: zer suposatzen duen emakume izateak, inposatu zaizkigun rolak eta

«Hirugarren saioa arte izena emateko aukera egongo da»

berez hartu ditugunak, emakumearen sexualitatea... Partehartzaileak euren egoeraren kontziente egitea da helburu nagusia. Jarrera asko kanpotik emanak etortzen zaizkigu. Horren jabe izatea da lehengo pausoa; gero erabakiko dugu horiek gureganatu nahi ditugun ala ez. Belaunaldi ezberdinetako emakumeak batzen badira ere, euren arazoan jatorria oso antzekoa da. o



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



VIEJO CAFE

kopak eta giro jatorria

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

AIXERROTA BHI
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

ISLAMARI BURUZKO ERAKUSKETA PLENTZIAN

Kultura Islamikoaren Fundazioak eta Alarabetah euskal zentro arabiarrek antolatuta, "Islama guztion ondarea" erakusketa izango da ikusgai Plentzian Goñi Portal Kultur Etxean urriaren 30a arte. Eduki pedagogikoa duen kultur egitasmoa da, batez ere, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago; hala ere, edozein adinetako jendearentzat izan daiteke aproposa. Astelehenetik zapatara, goiz eta arratsalde egongo da zabalik; domekatan oster, goizez baino ez.

URDULIZKO FUTBOL ZELAI BARRIA ZABALIK

Urriaren 11n inauguratu zuten Urdulizko Iparralde Futbol Zelaia. Honi esker, kategoría kopurua handitu ahal izan du Urduliz Futbol Taldeak. 2008-2009 denboraldia 165 jokalarigaz hasi dute, aurre-benjamin kategoriatik lehenengo taldera arte doazenak. Zelai barria, kirol gune handiago baten lehenengo pausoa baino ez da; izan ere, polikiroldegia eta piszinak eraikiko dituzte aurrerago.

IRAKURZALETASUNA BULTZATUZ GORLIZEN

Ume eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzeko helburuagaz hainbat ekintza antolatu ditu Gorlizko Kultur Etxeak urrirako. Alde batetik, 24an, "Liburutegiaren eguna" dute 18:00etatik 20:00etara. Hurrengo egunean, ipuin kontalaria izango da 18:30ean.

MANKOMUNITATEA

Euskara ahoan izango dute aurten ere Berbalagunek



Joan den ikasturtean Berbalagun egitasmoan parte hartu zuten lagunetako batzuk

Uribe Kostako Mankomunitateak eta Urtxintxa Eskolak Berbalagun egitasmoa martxan jarri dute aurten ere. Euskaldun zaharrak eta barriak euskaraz berbetan ipini gura ditu Euskal Herriko hainbat txokotan arrakasta handia izan duen proiektuak. Mankomunitateak hartzen dituen herrietan, joan den urtean hasi ziren Berbalagun bila. Egitasmoak izan zuen arrakasta ikusita (60 pertsona inguruk hartu zuten parte), aurten, barriro martxan jartzea erabaki dute.

Euskara ahoan Uribe Kosta osoan leloa

erabili dute kanpaina ezagutarazteko. Daborduko izena eman daiteke berbalagunuribekosta@hotmail.com helbidera ida-tziz, edo 605 77 35 41 telefonora deituz. Parte hartzaileak, lau pertsonatako taldetan bilduko dira astean ordu betez. Horrez gain, Berbalagun guztiak biltzen dituen ekintzak antolatuko dituzte. Arazoren bat izatekotan, arduradunaren laguntza izango dute. Duda barik, euskara praktikatzeko eta jendea ezagutzeko aukera paregabea!

Urr. 20 - Aza. 3

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Itziar Martinez Mansoren olioak.** Urriaren 27tik azaroaren 8ra, Algortako erakustaretoan.

► **M^o Concepcion Tamayoren Olio, akriliko eta collageak.** Urriaren 27tik azaroaren 8ra, Erromoko erakustaretoan.

PLENTZIA

► **Islama, guztion ondarea.** Urriaren 30era arte, Goñi Portalen.

ZINEMA

PLENTZIA

► **Emakumeak eta kultura-adierazpideak zikloa.** Urriaren 29an, 18:30ean.

ANTZERKIA

BARRIKA

► **Ukelele Jaunaren ikuskizuna.** Urriaren 25ean, Txintxilandian, 12:00etan.

ERANDIO

► **Encuentros. La Resistence.** Urriaren 25ean, Josu Murueta Kultur Etxean, 20:00etan. Gonbidapenez.

MUSIKA

GETXO

► **Olimpyc, Dynamo, Smile eta Sweet Oblivion. I. Sound Festival.** Urriaren 24an, Getxo Antzokian, 20:00etan. Gonbidapena txarteldegian hartu.

► **Mochlic, Atomic Disaster, Ukabilkada eta Patada en la Papada. I. Sound Festival.** Urriaren 25ean, Getxo Antzokian, 20:00etan. Gonbidapena txarteldegian.

► Elaudi eta Ken 7.

Iparralde gabe jardunaldiak. Azaroaren 1ean, Getxo Antzokian, 20:00etan, 5 euro.

LEIOA

► **Kroke. (Polonia).** Munduko musikak. Kultur Leioan, urriaren 24an, 21:00etan. 12 euro.

ERANDIO

► **Organo errezialdia.** Urriaren 31n, 20:00etan. Erandio Goikoako Andra Mari Elizan. Doan.



The Antioch Chamber Ensemble taldea, AEBtako

► Musika

Getxok XXVIII. Aste Korala ospatuko du

Urteroko zitari ezin kale egin eta badator Getxoko Aste Korala, beste behin ere. Hirugarren hamarkada betetzear dago gainera, aurten XXVIII. edizioa izango baita. Urriaren 28an, 29an eta 30ean egingo dituzte emanaldiak, Algortako El Redentor elizan. Hilaren 28an airtuko da The Antioch Chamber Ensemble, Amerikako Estatu Batuetako taldea. Biharamunean, berriz, Alemaniako Ensemble Vocal Hamburg taldearen txanda izango da. Urriaren 30ean amaituko dute Aste Korala, barikuan. Amaierako kontzertua abesteaz arduratuko direnak Mikrokosmos Vierzoneko lagunak dira, frantziarrak. Hiru emanaldiak 19:30ean hasiko dira, sarrera, doan izango da.

• **Non:** El Redentor elizan. • **Noiz:** Urriaren 28tik 30era.

BESTEAK

LEMOIZ

► **Poteo euskalduna.** Hilero, bariku batean, 19:15ean Kultur Etxeko azpialdean.

GORLIZ

► **Liburutegiaren eguna.** Ume eta gazteentzako irakurketa bultzatzeko tailerra. Urriaren 24an, Kultur Etxean, 18:00etatik aurrera.

► Ipuin kontalaria (Miriam Mendoza).

Urriaren 25ean ikastetxean, 18:30ean.

GETXO

► **Magia ikastaroa.** Urriaren 20an eta 27an eta azaroaren 3an, 10ean, 17an eta 24an. Algortako Kultur Etxean, 18:00etan. 5 euro.

SOPELA

► **Euskal jolasen ikastaroa gurasoentzat.** Urriaren 29tik azaroaren 26ra, eguaztenero. Ander Deuna ikastolan eta Zipiriñe ikastetxean, 18:00etatik 20:00etara.

BARRIKA

► **Field Target.** Euskadiko bosgarren erronda eta Bizkaiko lehenengo, 10:00etatik 13:30era. Elizaren ondoko zelaian.

PLENTZIA

► **Arabiar idazkeraren ikastaroa.** Urriaren 20an, 18:00etan, Goñi Portalen.

► **Arabiar eta islamiar kulturaren gaineko tailerra.** Urriaren 24an, Goñi Portalen, 18:30ean.

► **Perretxiko astea.** Urriaren 27tik azaroaren 2ra, Goñi Portalen.

BERANGO

► **Txokolatada.** Karabi Azpi erretiratuen elkarteak antolatuta.

ERANDIO

► **Umeentzako II. Jaia.** Urriaren 25ean, Altzagako azoka zaharrean. Tailerrak eta puzgarriak, 11:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era. Kiki, Koko eta Moko pailazoak, 18:30ean.

BARRIKA

► **Dantza eta kung-fu.** Urriaren 25ean, 10etatik 11:30era.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Hiltegia, goian bego!

Ehun urte baino gehiago zutik iraun dituen Getxoko eraikin mitikoenetako batek agur esan zigun urrian, Hiltegiak, hain zuzen ere. 1892. urtean Eladio Iturria arkitektoak sinatu zuen Getxoko Hiltegiaren proiektua. Ehun urte beranduago, 1986an, babestu beharreko eraikinen zerrendan sartu zuten. 2001ean babes hori kendu zioten HAPO hirigintza plan berria onartu zutenean. Hiltegiagaz batera, beste zazpi elementu eraitsi dituzte, tartean Malakate bat. Goian bego denoi!

Argazkiak: **Ane Basagoiti**





Erraldoia

... horrelakoa izan baita GETXOPHOTO jaialdiaren amaiera; ehun metro koadroko argazki erraldoia ipini dute Areetako Xake plazan. Lobo Altuna euskal argazkilariaren *Barlebooth In Memoriam* lana da, azken urteotan plazak jasan dituen aldaketak islatzen dituen 30 argazkitako *collagea*. Hiru egunez bakarrik egon da ikusgai lan izugarria, jaialdiari ohorezko amaiera eman dion gutizia.

[berbetan]

Indarrez mintzo dira Maite Agirreren begiak (Zarautz, 1955). Grina hauteman daiteke bere begiradan, baita bere hitzetan ere, eta hori, garrantzitsua omen da aktoreentzat. Urte asko daramatza Agirrek antzerkian, bizitza guztia. Bertako nahiz kanpoko taulak ezagunak ditu, eta makina bat obra antzestu du. Azken bi urteotan bi Max sari eskuratu ditu, gainera. Urriaren 17an erakutsi zuen *Putzuak lehortzen* azken lana Getxoko Antzerki Jardunaldietan, maitasuna hizpide. Obran diotenez, hauteman daiteke maitea norberaren patua denean; elkarrengandik aldentu eta beste norbait maitea daiteke, baina pasio hori ez omen da sekula bukatzen, betiko da.

Maite Agirre

Antzezpenaz bizi, antzerkia bizi

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **David Garcia**

—*Putzuak Lehortzen...* Beraz, maitasunak jarraitzen du, maitasunaren ondoren...

—Maitasunarekin batera doaz beste kontu batzuk eta horietaz ere hitz egiten dugu ikuskizunean: bakardadea, beldurra, pasioa, desioa... Horiek maitasunaren kontzeptuarekin bat doaz. Nolabait adierazten dugu maitasuna desioa dela, zerbait harrapatu nahi dugula eta ihes joaten ari zaigula. Ariketa horretan pasatzen dugu bizitza guztia.

—Lan askoren gaia izan da maitasuna, zer berri dakar zuen lanak?

—Beno, hori ikusleek esan beharko dute. Guk bi bikote aurkezten ditugu, biak bikote bera dira, bata gaztetan, eta bestea heldutan. Urte batzuk igaro dira bien artean eta erakusten dugu nolako ametsak, helburuak eta intentzioak izaten diren hasieran, eta pixkanaka, urte horietan guztietan zer gertatzen den. Urte batzuk elkarrekin bizi ondoren, une jakin batean batak besteari begiratzen dio eta bakoitzaren begiradan zer ikusten

duzen azaltzen dugu. Emakume eta gizona dira; urte horietan bakoitzak zer espero zuen, zer aurkitu duten eta zer erabaki hartuko duten handik aurrera, horixe da planteamendua. Nik uste baietz, badaudela hausnarketarako gauzak. Orain arte ikusleak hunkitu ditu lanak, nolabait. Antzezleontzako interpretazio ariketa garrantzitsua da, gauza batzuetan sakontzen ari gara, teatrotik urruntzen saiatzen gara eta arima erakusten dugu, ikusleen aurrean biluzten gara, gure emozioak garbi erakusten; horretan saiatzen gara behintzat.

“Ander Lipusekin bikote artistikoa osatzen dut lan honetan; larrua jotzea bezain gozoa da emanaldi bakoitza”

—Ander Lipusekin biluzten zara...

—Hain zuzen, bikote artistikoa osatzen dugu lan honetan. Bai, larrua jotzea bezain gozoa da emanaldi bakoitza, horrela esango nuke zakarki.

—Ander Lipus bera, Garbi Losada...

Elkarrekin lan egitea patuak eraginda gertatu beharrekoa zela aipatu izan duzu.

—Gure lankide batekin prestatzen genbiltzan programa, eta galdera batzuk zeuzkan. Obrari buruz hitz egiten hasi eta berak hainbat gauza apuntatu zituen, gustatu zitzaizkionak azpimarratu zituen; patuari buruzkoa izan zen horietako bat. Ez dakit horregatik den, baina hemen gabilta denok behintzat; oso tribu diferenteetakoak, baina elkarrekin, batera eta nahastuta. Familia bihurtu gara.

—Jende ona dago euskal antzerkigintzan, baina kanpora joan behar?

—Beno, hemen oso zirkuitu txikia daukagu, lan gutxi dago, eta talde asko; orokorrean hala gertatzen da komunitate guztietan. Antzerkilariok gero eta zailago daukagu bizirautea; kanpora joatea derrigorrezkoa izaten da, eta urrutira gainera. Baina



hor gaude, eta bertan jarraituko dugu guda honetan.

—Zuk zeuk Bartzelonan sortu zenuen zure lehen antzerki taldea, han jarri zenituen oinarriak?

—Profesionalki han hasi nintzen, bai. Gero Italiara joan eta prestakuntza sakona hasi nuen, eta oso diferentea. Baina une batean bi leku horietan egindakoa batu zen.

—Halere, ez dakit bihotzak esan zizun: zoaz Euskal Herrira, baina itzuli eta Agerre Teatroa sortu zenuen.

—Italiar herriarekin eta antzerkigintzarekin oso enamoratua nengoen (oraindik jarraitzen dut), baina oso argi neukan sustraiak berreskuratu behar nituela antzerkia egiten jarraitzeko; nire kultura eta hizkuntza behar nituen. Erabaki gogorra izan zen, zerotik hasi beharko nuelako, baina zerbaiterako beharra duzunean, egin egiten duzu.

—Zer dauka Agerrek urte horietan guztietan irauteko?

—Bitxia da, baina antzerkian horrela gertatzen da. Musika taldeek, sortu eta urte batzuetara banatu edo beste talde bat sortzen dute. Baina antzerkilariok talde berarekin jarraitzen dugu, familia balitz bezala. Beste taldeekin esperientziak edukitzen dituzu, baina taldera bueltatzen zara, zure tribura. Egun beste fenomeno bat dago, ekipo diferenteak osatzen dira, lanaren arabera beste aktoreak edo zuzendariak kontratatuz. Enpresa irekiak dira antzerki taldeak, eta joan-etorri asko egoten dira.

—Agerrek gainera, bi Max sari eman dizu azken bi urteotan *Neska politikak, artasoro alaiak* eta *Haur kabareta* lanei esker. Nekea albo batera uzteko modukoa, ezta?

—Egun ilunak hainbatetan izaten dira urtean, gorabehera normalak dira. Eta sariak bai, ferekak dira aurrera jarraitzeko, arnas hartzeko bultzadaxoa. Beste gauza askok ere badute eragina seguruenik, baina batez ere, eguneroko lana da inportantea, eta beti ilusioa edukitzea.

—Saria jaso duten lan biak bitxiak direla aipatu zenuen. Zer berezitasun dute?

—Ez dakit, egia esan. Niretzako lehena,

Neska politikak, artasoro alaiak, zirrargarria da, afrikar kultura indartsu ageri delako. Afrikan antzerkigintza esperientzia bat egin nuen eta hunkitu ninduen. Orain ere egitasmo bat prestatzen nabil Mozambiken egiteko. Hark eragin handia izan zuen nire lanean, eta *Neska politikak, artasoro alaiak* obran saiatu nintzen euskal kulturaren eta etorkinen kulturaren arteko topaketa islatzen. Zuzeneko

“Laugarren pareta apurtzea dut gustuko, ikusleak taulara igoarazi eta probarazi bertatik zer sentitzen den”

musika zeukan, bertakoa eta hangoa. Gaia eta giroa erakargarriak eta xarmagarriak ziren. Beste lana, *Haur kabareta*, oso esperientzia ederra da. Orkestra bat osatzen dugu datozen umeekin, taula gainera igotzen dira eta inprobisatzen dugu. Oso gauza politikak sortzen dira; umeek ezer berezirik egin ez arren, oso gauza ederra ematen du. Asko ematen dit ikuskizun horrek. Izan ere, laugarren pareta hori apurtzea dut gustuko, ikusleak taulara igoarazi eta probarazi bertatik zer sentitzen den. Oso lasai igotzen dira gainera.

—Zuzeneko musika garrantzitsua da, beraz, zure lanetan.

—Bai, ia nire lan guztietan musika zuzenean jotzen dugu. Teatroa eta musika, bat doaz niretzat, behar hori daukat. *Putzuak lehortzen* honetan ere ikuskizunerako sortua da musika, eta zuzenean jotzen da. Ikuskizuna

“Euskararen etorkizuna antzerkigintzan gure esku dago; gaur egiten duguna bihar aurkituko dugu”

eta bere musika naturalki sortzen dira bate-ra, agian oso harreman estuak dauzkadalako musikariekin.

—Max sariak aipatu ditugu, eta sari biak euskarazko obrek eman dizkizute. Garrantzitsua da zuretzat?

—Oso garrantzitsua. Programatzaileek askotan galdetzen digute euskaraz ala gazteleraz

egingo dugun, jakin badakitelako ikusle gehiago joango dela gazteleraz eginez gero, baina beno, beste aldetik, hori normala da. Halere, ikuskizun guztiak bietara egiten jarraitzen dugu, eta saiatzeko gara euskararen bertsioa bultzatzen. Gero eta euskarazko bertsio gehiago egiten ari gara, gainera. Aipatu ditugun lan horietan emanaldi gehienak euskaraz egin ditugu, esaterako. Hori polita da,

hizkuntza bat dugu eta defendatu behar dugu. Hizkuntza aberastasuna da beti, eta hizkuntza diferenteak, aberastasun handiagoa.

—Beraz, badauka tokia antzerkigintzan euskarak, badauka etorkizunik?

—Gure esku dago. Lanean jarraituz gero, edukiko du, noski! Etorkizuna gaur egiten ari gara; gaur egiten duguna bihar aurkituko dugu, horrela jarraitu behar dugu. *Putzuak lehortzen* ikuskizun honetan esaten dudanez, biharrik ez dago, beti da gaur.

—Zuk ere aipatu izan duzu hemen, antzerkia egiteko, ausardia behar dela.

—Bai, ausarta izan behar da, arlo askotan. Oztopo handiak daude, oso zaila da. Diruaren aldetik ofiziorik onena ez da, baina bokazioa izanez gero, egin nahi izanez gero, egin daiteke. Baina beste oztopo batzuk ere badaude, instituzionalak. Teatroa adminis-

trazioaren esku dago nolabait. Garai batean, edozein plazatan antzeztzen zenuen lana, arazorik gabe orokorrean. Diru gutxiago zegoen, baina askatasun handia. Gaur egun, antzeztzen baduzu dirua irabazten duzu, baina zaila da antzezte. Administrazioaren esku dagoenez antzerkia, beraiek administratzen dute ikusleei zer ematen zaien. Oso borroka

astuna eta gogorra dago hor. Eguneroko borroka da gainera, beraiekin hitz egin behar duzu, eta sinestarazi zure ikuskizuna interesgarria eta beharrezkoa dela antzerkigintzan. Gogorra da, baina sorkuntzarekin batera doa. Lehen uste nuen bakoitza bere aldetik zihoala, baina orain eskutik helduta doaz sorkuntza eta borroka. Sortzaile gisa, ausardiaz proposatzen duzu ikuskizuna, eta horrekin batera doa borroka politikoa, egunerokoa, programatzaileekin, administrazioarekin eta erakundeekin.

—Hori da pasioa?

—Bai, pasioa, kemena eta arnasa daukazulako egiten duzu. Horiek gabe ezinezkoa litzateke. Emakumeok, gainera, ohituta gaude eguneroko borroka isilera, hori da gure iraultza. Orain dela gutxi gizonezko batek esan zidan, emakumeok egiten ari garen iraultza edo errebolta isil hori oso garrantzitsua dela. Horrela aritu gara 2008

urte luzeotan, eta askotan, ikusi dugu gizonezkoen iraultza hitzak eta ekintzak ez datozela bat. Gu ari gara eguneroko borroka isilean. Oso ohituta gaude, oso natural egiten dugu. Baina urte asko daromatzat teatroan eta toki guztietan ikusi dudanez, taldeetan emakumeak aritu gara bi arloetan; sorkuntzan eta borrokan, taldea aurrera eramaten, gizonezkoek baino.

“Emakumeok ohituta gaude eguneroko borroka isilera; hori da gure iraultza”

Beraiek emanaldia zeukaten eta badago. Agian erakundeekin hitz egiteko hobeto da gizonezkoa bidaltzea, baina eguneroko borrokan emakumeok jarraitzen dugu.

—Eta orduan, eskuratu al du emakumeak zor zaion lekua antzerkigintzan?

—Zaila da horri erantzutea. Baietz pen-

tsatzen dut, baina sentitzen dut erakundeekin ez dela gauza asko aldatu, emakumeen gaiarekin ardura handia hartu dutela iruditu arren. Nik jarraitzen dut gizonezko bat bidaltzen erakundeekin hitz egitera, bestelako eragina dauka, bestelako arretarekin aditzen dituzte proposamenak, eta bestelako seriotasunarekin hartzen dute aurkezten duzuna. Beraz,

agian asko-asko ez da aldatu egoera. Kontuan hartu behar da antzerkian ikusleek %80tik gora emakumeak direla. Gizonezkoek ez dute hori kontrolatzen, eta gehiago izan beharko lukete kontuan. Baina hor jarraitu behar dugu, eta hor arituko gara. o

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Geba / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37



LONDRES 1981

Gazte estetikak

Hiri handien kaleak plato gogokoena bezala hartu ditu Miguel Trillok (Jimena de la Frontera, 1953) eta horietan musika korronteak erretratatu ditu azken 30 urteotan. Bere lanak rock, pop edota rap-aren bidez gorputza identitate zeinu eta leku batzuk sormenerako gune bihurtu dituen internacional gaztea erakusten du. GETXOPHOTO jaialdian ikusi ahal izan ditugu orrialde hauetako argazkiak eta munduko edozein hiritako kaleetan horietako protagonistak.

Argazkiak: **Miguel Trillo**



DUBAI 2008



DONOSTIA 2003



MADRIL 1990



BARTZELONA 1989



READING 1985




BILBO 1995



TOKIO 2007



BILBO 1994



BILBO 1995



XIXON 1997



PEKIN 2007

I

Iñaki Bítxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarr 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

[zinema]

Labean ber@tzen

La maquina de pintar nubes, Aitor Mazo eta Patxo Telleriaren lehenengo film luzea



Aitor Mazo

Iragan ekainaren 16a eta uztailearen 26a bitartean filmatu zituzten Bilbo aldean *La maquina de nubes* pelikulako lekutzeak. Orain filma post-produkzio onean dago, berotsu-berotsu, beratzen; ostera, labetik noiz irtengo den eta gozagai noizko egongo den ez dute iragarri filmako zuzendari eta gidoilari Aitor Mazok eta Patxo Telleriak. Aurpegi ezagunak dira bai bata zein bestea. Hamaika telesail, antzerki lan eta pelikulan jardun duten aktore bientzat estreinako lehenengo film luzea da zuzendari legez. Filmaren gidoia ere alkarregaz idatzi zuten orain dela lau bat urte, sariren bat ere jaso du gidoiak, baina orain pantaila handira eroateko garaia heldu zaie.

1974-76ko Bilbon girotutako lana da *La maquina de pintar nubes*, komedia dramatikoa etiketa ipini diote egileek eta pinturaz, eta oro har arteaz dihardu. Garai ilunetako edozein hiri gris eta industrial irudikatzen du, garai politiko-ekonomiko latza... Margolari baten seme gazteenaren eta daltonikoaren (Asier) istorioa kontatzen du pelikulak, maitemintzearen ondo-

rioz margozteko beharra sentitzen duena eta gertutik zein beste mundutik mesede egingo dion anaiaren laguntza izango duena... Gaztearen artearen mundurako sarbide-bidaia... Eta horren guztiaren oinarrian, pertsona artearen bidez adieraztera eroaten duten zioak azaltzen ahalegin du direla azaldu dute zuzendariak.

Zuzendari-gidoliz gainera aktore ere badira euren filman Mazo eta Telleria. Eurakaz batera ezagunak zaizkigun aktoreek (Ane Gabarain, Gorka Aginagalde, Gracia Olayo, Mikel Martinez, Ramon Agirre, Ramon Barea, Santi Ugalde,

«1974-75eko hiri gris eta industrialean margotu gura duen gazte daltoniko bat; pintura, artea...»

Txema Muñoz, Xabier Bilbao etab.) eta baita eurentzat lehenengo film luzea izan den antzezleek osatzen dute aktore-zerrenda, hala nola, protagonismo nagusia duten: Bingen Elortza (*Asier*), Loreto Mauleon (*Sara*; maitemina) edota Asier Oruesagasti (*Chevi*; mutil makarroi). ○

Getxo Antzokiaren agurra

Getxo Sound jaialdia eta **Ken Zazpi** taldearena izango dira agur-kontzertuak

GETXO SOUND FESTIVAL

Getxo Antzokia · Urria 24-25 Octubre · 20:00etan
Sarrera Gonbidapenez / Entrada con invitación

24 ostirala / viernes
25 larunbata / sábado

OLIMPIC
DYNAMO
SMILE
SWEET OBLIVION

MOCHLIC
ATOMIC DISASTER
UKABILKADA
PATADA EN LA PAPADA

Getxo Sound jaialdia iragartzen duen kartela


Agur musikatu edukiko du Getxo Antzokiak, dezibelio altudun musikak ozen egingo dio gainera azken agurra. Kunka Producciones taldearen "Sexo gratis" antzezlan izango da bertan taularatu den azkeneko antzerki emankizuna. Ostean, Antzokiko 480 jararlekuak kendu eta musika kontzertuak antolatu dituzte.

Lehenengoa, Getxoko Kultur Etxeak antolatu duen Getxo Sound jaialdiaren estreinako ekitaldia izango da (hilak 24 eta 25; 20:00etan; gonbidapen bidezko sarre-rak leihatilan). Aurreneko egunean Olympic, Dynamo, Smile eta Sweet

Oblivion taldeek eskainiko dute kontzertua eta bigarrenean Mochlic, Atomic Disaster, UKabilkada eta Patada en la Papada taldeek. Ekitaldiko antolatzaile Iñaki Elorriagak azaldu legez, *"denak dira bertoko pop-rock taldeak; 18 urte daroagu herriko taldeakaz lanean, baina ez da egon horrelako emanaldiak antolatzeko areto egokirik, orain Antzokia botatzeko jararlekuak kenduko dituztela aprobeztatu dugu hau antolatzeko"*. Azkenik, eraikinaren eraispnaren ia bezperan, Iparra Galdu Gabe jardunaldien barruan, Ken Zazpi taldeak eskainiko du bertan kontzertua (hilak 1, 20:00; 5 euro).○

diskoak

Getxo
Korrontzi
Baga-Biga




Korrontzi taldeak Getxo Folk 2008ko ekitaldian, irailaren 4an, arrakasta itzela izan zuen eta bertan grabatu zuten zuzenean euren bigarren diskoa, *Getxo*. Disko bikoitza da, DVDa eta CDa, eta azaldu dutenez, "Euskal Herriko folk nortasuna markatzen duen triki soinukaz munduari begiratuko diogu aurrez aurre lan honegatz".

Goin' west
Mingo & The Blues...
Gaztelupeko Hotsak



Mingo Balaguer Sevillako (Espainia) harmonika jolea buru duen Mingo & The Blues Intruders taldearen lehenengo diskoa plazaratu du Gaztelupeko Hotsak zigiluak. 2002an sortu zen taldeak bluesaren barneko estilo ezberdinak jorratzen ditu, eta ahotsagaz esperimintatzeko gogoari ez dizkio hegoak ebaki Balaguerrek.

Negro y Murguero
Ariel Prat
Universal Music Argentina



Seigarren disko hau iaz plazaratu bazuen ere, promozio biran dabil Ariel Prat, orain dela gutxi Bilbon egon da. Buenos Airesko aretoetan ezaguna den "murga portefaña" deritzen (tangoaren jatorrian dauden afrikar erroak dituen) estiloko musikari nagusietakoa da Prat, eta Bersuit Bergarabat rock talde ezaguna lagun izan du lan honetan ere.

Gaztesarea >

Musikagida 09



GazteSarea ekimena Musikagida 09 prestatzen dabil Durangoko azokara begira. Sortzaile barrientzat, eta talde gazteentzat musikaren munduan

bidea zabaltzea, eta euren berri ematea erraza ez dela ikusita, musika gida egitea otu zaie. "Euskal Herriko herri eta auzoetan sakabanatuta dauden musika sortzaile guztiak batu eta liburuxka batean argitaratzea, bakoitzaren argazki, datu eta harremanetarako kontaktuakaz batera; MUSIKAGIDAn prentsa eta irratietan azaltzen ez diren ehunka talde interesgarri topatuko dituzte". Durangoko azokan salgai egoteaz gainera, urtarilean gaztesarearen webgunean ere egongo da eskuragai MUSIKAGIDA. Izena emateko epea azaroaren 1ean amaituko da (partehartzeko oinarriak beheko helbidean).

Informazio gehiago:
www.gaztesarea.net/musikagida

Leioa >

Munduko Musikak

XIX. Musika Denboraldiak aurten Munduko Musikak programa dakar Kultur Leioara. Lehenengo emanaldia, Cabo Verdeko Tito Parisena, dagoeneko iragan da, baina ondino beste 3 kontzertugaz gozatzeko aukera dago: Poloniako Kroke taldearena (hilak 24), Armeniako Arto Tunçboyacıyanena (azaroak 14) eta Portugalgo Mafalda Arnauthena (azaroak 28). Kontzertuak 21:00etan hasiko dira eta sarrerek 12 euro balio dute.

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikusi!!

LIBURUDENDA

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algortia

GORLIZ IRRATIA
Urbe Kostako Irratia 107.8 FM
www.gorlizirratia.com

[liburuak]

Irakurzaleen Txokoa bueltan

Jon Martinen **Ero** ipuin liburuaz egileagaz beragaz jarduteko aukera **hilaren 30ean**

Barrío ere martxan ipini dute Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoa. Oro har literaturaz, eta momentuan momentuko aukeratutako liburuez eta euren egileakaz berba egiteko antolatzen duten ekimena ohi legez hilean behin egingo da, edo hori da antolatzaileen asmoa behintzat.

Lehenengo hitzordua hilaren 30erako ipini dute (Aldai Patronatua, 20:00) eta Jon Martinek (Oiartzun, 1981) *Ero* (Elkar, 2007) bere bigarren liburuaz jardungo du, besteak beste. Hurrengo hitzordua Getxoko Euskara Jardunaldien barruan izango da, abenduaren 2an eta 4an, eta antolatzaileek azaldu dutenez *“berbaldiez gainera, literatura gozatzeko beste modu bat*

«Abenduaren 2an eta 4an literatura lantegia antolatuko dute»

probatu gura izan dugu eta jendearen parte-hartzea areagotzeko helburuagaz ere, egun horietanako lantegi bat antolatzeko asmoa dugu, ziurrenik Julen Gabiriak gidatuko duena”. Ostean, datorren urteko lehenengo topagunearen data oraindik ez dute zehaztu, urtarrilaren 11n edo 18an izan badaiteke ere; baina buruan darabilten ideia Irati Elorrieta getxoztarra gonbidatzea da.

Dena dela, hel diezaigun lehen zitari.



Jon Martin (Oiartzun, 1981)


Ero ipuin liburuia irakurri ez duenak oraindik ere badauka denbora, halere, labur-labur hor doaz zertzelada batzuk: Harreman Publikoetan lizentziaduna da Martin, kazetari ere jardun du, ostera, bertsolari legez da ezagunagoa. 2006an Igartza Literatura beka irabazi zuen 19 ipuinez osatutako lan honen egitasmoagaz, eta Kuba eta India bitartean idatzi zuen. Bere esanetan *“ez da psikiatrikoko eroen liburuia”*, istorioetako batzuek erotasuna gaixotasun legez lantzen dute, *“aise sailka ditzakegu psikiatiaren anabera, patologia klinikoa ezarri eta lasai segi”*, baina beste batzuetan antzemango dugu *“ez datozela beti bat berez garena eta gizartean enakusten duguna, eta antzeppen horrek ero bihurtzen ditu batzuk. Edo batzuek ez dute antzeztan, eta horiek gizarteak zuzenean erotzat hartzen ditu”*. ○

liburuak



Nikoleta eta gaua
Eider Rodriguez
Elkar

Iluntasunaren beldur da Nikoleta Arrieta, baina beldur hori gaintzen lagunduko dionik aurkituko du. Egunez pozik eta alai dabil, baina ilunabarragaz batera goibeldu. Ostera, Mika zaharra ezagutu, eta sekretutxo bat kontatuko dio gauzen ikuspegia aldatuko diona.



Bagdadeko aurpegia
Juan Kruz Igerabide
Erein

Txirikordatutako istorio bi eskaintzen digu nobelak, denbora bi elkarrizketan, borbaxeriaren gorrieriaz gaindi. Iraganeko handitasuna, sufi xumeen jakinduria... oraindik ere bizirik dago nolabait Bagdad borbaxatua bizi diren izaki minduetan...

[kirola]

Botatako izerdiari gorazarrea Bizkai Kirolak sarien erdia baino gehiago Uribe Kostara etorri dira



Eskola kirolaren alde egindako lanagatik Getxoko Udala saritu du BFAK, irudian Fadura

Uribe Kosta kirol harrobi ederra da, hori aurretik ere bagenekien, baina noizean behin erakunderen batek sariak banatzen ditu, eta emoten du orduan gure susmoek edota iritziek indar handiagoa hartzen dutela.

Hala, Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) oraintsu banatu ditu Bizkaia Kirolak 2008 sariak. BFA orain dela hiru urte hasi zen kirolari begirako sari hauek ematen, eta “bizitzaren alde garrantzitsu bat kirolari eman dioten edo lurralde historikoan kirola sustatu duten pertsona fisikoei eta juridikoei jendaurrean esker ona adieraztea” da horien helburua. Guztira zazpi sari banatzen dituzte eta aurtin, erdia baino gehiago, zazpitik lau, eskualdeko 3 kirolari eta kirol erankunde bati eman dizkiete.

Kirol ibilbide aipagarria txalotzen duen saria Getxo Arteko Isabel Rodriguezek errugbi jokalaria eman diote. Kirol horretan eman dituen urte andanan Getxoko taldean fin ibiltzearen ondorioz Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako lurralde historikoak batzen dituen selekzioaren buru izan da hainbatetan Rodriguez, eta nazioarte mailan ere jardun du

Espainiako selekzioagaz; batean zein bestean hainbat sari lortu ditu.

Herri kirolean daukan jardueren eta emaitzen curriculumagatik eta esparru horretako (aurtengo kasuan, sokatira) kirola bultzatzen egindako lanagatik Goierri kirol elkarte-ko Jose Luis Orozko “Txelis” sokatiralaria eta entrenatzaile erandioztarra saritu dute.

«Isabel Rodriguez, J. L. Orozko “Txelis”, Javier Otxoa eta Getxoko Udala saritu dituzte»

Sariak lortzeari uzten ez dion eta aspaldi Berangon bizi den Javier Otxoa ere jaso du saria, ezintasunen bat duten pertsonen kirolean egindako lana goraiatzeko duena, hain zuzen.

Azkenekoz, herriko ikastetxe guztiak biltzen dituen plan estrategiko bateratuaren bidez eskola kirolaren alde egindako lanagatik Getxoko Udala saritu du BFAK. Gainontzeko sariak A. D. Elorrieta, Mungiako BHI eta Santa Maria IGE ikastetxea eta Arrantzaz Casting Federazioa izan dira. Bejondeizuela denei, eta ez utzi izerdia botatzeari! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol
moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris.S.L. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Jorge Perales Perales eta Pablo Diaz Largo > Eztabaida gunea

“Aldaketak proposatu dituzten borroka sozialak erakutsi gura ditugu”



Perales eta Largo Eztabaida gunean

Asteotan zabaldu dute Eztabaida gune anti-autoritarioa Algortan. Euskal Herria kalean topa daiteke liburu-denda hau, eta besteetatik desberdina da. Normalki topa ez daitezkeen argitalpenak eskuragarri dituzte. Kontra-informatiboak legez definitu dituzte argitalpenok gunearen sortzaileek, Jorge Peralesek eta Pablo Diazek, edo hobeto esanda, Perales eta Largok, jende orok ezizen horiekaz ezagutzen ditu eta.

—Zer da Eztabaida gunea?

—Kontra-informaziorako egitasmoa da. Kalean edo ohiko hedabideen bitartez eza-gut ez daitezkeen egoerak, jazoerak eta ekimenak ezagutzera emateko sortu dugu. Aldaketak proposatu dituzten borroka sozialak erakutsi gura ditugu egitasmo honeguz. Musika atal zabala dugu, eta esan genezake hori dela jendea erakartzeko amua, ea horrek liburu edo fanzineak irakurtzera ere eramaten dituen. Doako argitalpenak ere izango ditugu, kontra-informazio egunkariak... Jendea irrika eragin gura diogu, horrela bide komertzialen bitartez eskuratzeko zaila

duen informazioa lor dezan.

—Baina zer da, denda ala liburutegia?

—Gauza biak izan gura du. Liburu-denda da, baina batez ere, gainontzeko leketan topa ezin daitezkeen argitalpenak aurkituko dira hemen, bai musika, bai irakurketa aldetik.

—Liburutegia ere badaukazue?

—Oraindik ez, baina etorkizunean antolatzeko asmoa daukagu. Aldizkari zaharren, jadanik argitaratzen ez diren liburuen eta egunkari zaharren artxiboa osatu gura dugu. Gainera, bideoteka ere osatzen gabilza, filme eta dokumental kritikoakaz. Bere fun-

tzionamendua ez da ohikoa izango: bideo bat hartu eta borondatezkoa izango da dirua trukean ematea. Bestalde, eskualdeko elkar-teen arteko topalekua izan gura du guneak: elkar-teen batek zerbait antolatuz gero, hemen utz ditzake kartelak eta beste herrietako elkar-teen lagunek beraien herrietan jar ditzakete. Postontziak izango dituzte horretarako.

—Eta zergatik egin duzue hau?

—Uribe Kostan mota honetako informazioa falta da. Bilbon badago aukera horrelako argitalpenak lortzeko, baina hemen ez. Eskualde handia da, eta horrelako gunea

«Eskualde handia da, eta horrelako gunea behar da; formazioa falta dugu»

behar duela uste dugu. Gaztetxe eta kontra-informaziorako hainbat hedabide egon badago, baina formazioa falta dugu; bestelako irakurketak, borroak eta mugimenduak ezagutzea falta zaigu, zerbaiteira iritsi ahal izateko. Jendea badago, baina ez da ezer egiten hainbat egitasmoren aurka. Adibidez, lurraldeko zati-planagaz lurralde guztia jango dute, eta jendeak txarto deritzo, baina besterik ez. Gertatu diren beste mugimendu batzuk edo irabazi diren bestelako borroak ezagutzera gero, ostera, erabilgarriak izan daitezkeen ideiak har litezke. Egitasmorako ideia Bilboko Gatazka gunetik hartu genuen, hura badabilela konturatu baiginen. —Ez da lan erraza izango jendea erakartzea gune honetara, ezta?

—Itzultzetan Gaztetxean kontzertua antolatu gabilza, gunea inguruan ezagutzera emateko eta auto-finantzatzeko. Triptikoak eta kartelak jarriko ditugu, eskualdeko elkar-teei aurkeztuko diegu gure burua. Ia egunero daukagu zabalik denda, goizez eta arratsaldean zehar, eta goizez zapatuetan. ○

GETXO-08

IPARRA GALDU GABE

Urriaren 24tik azaroaren 9ra
III Jornadas sobre Iparralde 24 octubre - 9 noviembre

IPARRALDEKO DANTZEN IKASTAROA / CURSO DE BAILES DE IPARRALDE
Urriak 17 eta 24 / 17 y 24 de octubre.
Zabala ikastetxearen gimnasioan. 17:30-19:30. Doan / Gratis

IPARRALDEKO KANTEN IKASTAROA Mikel Markez kantariaren eskutik
CURSO DE CANCIONES DE IPARRALDE a cargo de MIKEL MARKEZ.
Urriak 21 eta 28 / 21 y 28 de octubre. Itsasgonian.
19:00-21:00. Doan / Gratis

Exposición "BATEK MILA, EUSKAL MUNDUAK" Erakusketak
Urriaren 24tik azaroaren 9ra. Del 24 de octubre al 9 de noviembre.
Algortako Getxoko plazako karpin. 10:00-14:00/17:00-20:30. Doan / Gratis

DIAPORAMA: Ipar Euskal Herriko mendiak hurbilagoatik. PANPI OLAIZOLA
Urriak 30 **octubre.** Villamonteko Kultur Etxean. 20:00. Doan / Gratis.

ERROMERIA eta TXIXBURDUNTZIA KIKI BORDATXO taldea. IBAIONA Ipar Euskal Herriko txerriko, RUILEGIKO ardoa, EZTIGAR, SAIGARDOA
Romería con KIKI BORDATXO, carne de cerdo IBAIONA, vinos de RUILEGI, sidra EZTIGAR. Urriak 31 **octubre.** San Nikolas plazan. 19:00.
ATFAL Sahararen aldeko elkar-teen laguntza egongo da San Nikolas plazan / Txosna a cargo de la asociación pro-Sahara ATFAL.

Eskezik: EGIZU eta bere mendi taldea, Geroa ikastetxearen mendi taldea, Itxas Argia mendi taldea, Itxas Geroa mendi taldea, ATFAL Sahararen aldeko elkar-teen laguntza, Geroa ikastetxea, Aixerota Institutua, J. Bta. Zabala ikastetxea, Itxasgonian kultur gunea, Itxas Argia Dantza Taldea.

IPAR-HEGOA KONZERTUA: KEN ZAZPI (Hego Euskal Herria) ELAUDI (Ipar Euskal Herria)
Azaroak 1 **noviembre.** Getxo Antzokia. 20:00. Prezioa: 5 €. Sareraren sartzakia / **Venta de entradas:** BBK-en orotariko kutxazainak, cajeros multiservicio BBK, www.bbk.es eta Villamonteko Kultur Etxea. ATFAL Sahararen aldeko elkar-teen laguntza egongo da San Nikolas plazan / Txosna a cargo de la asociación pro-Sahara ATFAL.

MY JOK kolektiboa. BURP UNDERGROUND REPORT
Azaroak 4 **noviembre.** Villamonteko Kultur Etxea. 20:00. Doan / Gratis.

Cuentacuentos KOLDO AMESTOY Ipar kantaria. SENDIren eskutik.
Azaroak 6 **noviembre.** GEROA ikastetxean. 18:00. Doan / Gratis.

MENDI IBIJALDIA IPARRALDEAN, PANPI OLAIZOLAren eskutik
EXCURSION POR EL MONTE EN IPARRALDE a cargo de PANPI OLAIZOLA
Azaroak 9 **noviembre.** Txartela / Tiquet: 3 €. Itxasgonian. Itxasgonian ematea / **Inscripciones:** Villamonteko Kultur Etxean

Antolatzaileak: Organiza

Laguntzaileak: Colaboradores


Badakizu zein den gure altxorrik handiena?


Orain arte, Getxoko turismo eskaintza, bere kaleak, zubiak, hondartzak, etxeak eta abar izan dira. Orain, Getxoko Udalak bertara datozen turistei beste altxor bat erakutsi nahi die.

Udaleko Euskara Zerbitzuak kaleratutako lauomikoarekin herrira datozen turistei ongiatorria egin nahi die eta EUSKARA ere badugula eta gure altxorra dela adierazi nahi die.

Horretarako, hiztegi txiki baten laguntzaz animatu nahi ditu hirulau berba ezagutu eta erabiltzera.

Getxoko udalak, UK irakurtzen duzuen herritarrei ideia bat helarazi nahi dizue. Zuen etxera kanpoko norbait baldin badator, eskatu turismo bulegoan lauomikoa eta aurkeztu zure gonbidatuari Getxoko altxorrik handiena: EUSKARA!





BADAKIZU ZEIN DEN GURE ALTXORRIK HANDIENA?

SAPS QUIN ÉS EL TESOR MÉS GRAN QUE TENIM?

¿CONOCES NUESTRO MAYOR TESORO?

DO YOU KNOW OUR GREATEST TREASURE?

CONNaissez-VOUS NOTRE TRÉSOR LE PLUS CHER ?

Euskara

[norajoan]

Bisu taberna

Kulturen nahastea sukalde barruan



Argi Tobalina eta Mikel Lazkano Bisu tabernan

Bi su gozo nahastu dira Sopolako Sertutxa kalean, Argi Tobalina eta Mikel Lazkano sukaldariena, hain zuzen ere. Ekainean zabaldu zuten Bisu taberna, Euskal Herrian zein atzerrian ostalaritza munduan urtetan lanean ibili eta gero. Aurretik ere taberna izandako lokala bazen ere, erabat garbitu diote aurpegia: "Estruktura aldatu ez badugu ere, goitik behera barritu dugu. Estilo ezberdina eman gura izan diogu, modernoa". Tabernaz gain, 50 pertsona har ditzakeen jangela daukate.

Gure herrietako kaleetara bezala, Bisuko sukaldera ere kulturen dantza heldu da: "sukaldatzeko modu nahiko berezia daukagu; nahasteak egiten ditugu. Oinarriztat, Euskal Herriko sukaldaritza tradizionala hartzen dugu; azken finean

hemengo produktuak erabiltzen ditugu. Baina, beste kultura batzuetako lan egiteko moduakaz eta lehengaiakaz nahasten dugu, Mexikokoagaz eta Ekialdekoagaz, besteak beste". Eguneroko menuaz gain, aurrez aldetik deituz, enkarguz, zehaz daitekeen menu berezia daukate. Honez gain, pintxo aukera zabala: "Aurrerago, pintxoekaz batera, barran jan ahal izango diren etxeko pizzak eskaintzeko asmoa daukagu".

Denbora gutxi daroen arren, pozik daude sopoloztarrek egin dieten harreragaz: "Harrituta gaude hurbildu den jendetzagaz. Kale berean arrakasta daukaten beste taberna pare bat dago eta horrek asko lagundu digu".

Sertutxa kalea 4, SOPELA
Tel.: 94 602 24 75

KONTXI
ZUÁZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

GOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

ARTAZA ETXEA
jatetxea
• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak
asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI -
GETXO

basalbobaserria@yahoo.com



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g,
Algorta

*Telf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Arazoei ikuspegi ezberdinetatik begiratzen ikasi behar duzu. Ondo etorriko zaizu hori, maitasun kontuetan gehien bat. Hala ere, badaude irtenbiderik ez duten arazoak.</p>	<p>OTSOA</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Hanburesak jateari uzten ez badiozu ez zara sekula sendatuko. Elikadura egokia ezinbestekoa da. Fruta, barazkiak, zerealak... gogoratzen ahal dituzu? Hurbil zaitzen dendara eta bete ezazu hozkailua. Zure bihotzak eskertuko ditu.</p>	<p>ADARRA</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Arazoak zuk pentsatzen zenuena baino askoz errazago konponduko dira. Ez dago gauzak lasaitasunez hitz egitea baino gauza errazagorik. Sentitzen duzuna bestekaz konpartitu beharko zenuke, berarekin batez ere.</p>
<p>AITZURRA</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Ideiak errealitate bihurtzeko daukazu gaitasuna ikaragarria da. Jarraitu horrela eta urruti helduko zara. Dena den, badakizu proiektu barriak martxan jartzeak denbora eskatzen duela. Eta denbora, dirua da.</p>	<p>HOSTOA</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Kirola egiten hasiko zinela esan zenuen orain dela aste batzuk, baina ondino ez zara hasi. Lagunakaz batu eta mendira joatea aukera polita izan daiteke. Gainera, hiriko estresetik urruntzen lagunduko dizu bide batez.</p>	<p>EGUZKIA</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Lagun berezi horrek asko lagundu dizu azken boladan. Orain berak behar du laguntza, eta zuk ez dakizu nola erantzun. Askotan ondoan egoteagaz nahikoa da. Emaiozu besarkada handia.</p>
<p>GARIA</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Denboralditxo batez, atzerrira bizitzen joango zarela esaten duzu urtero, herriagaz nazkatuta zaudela. Baina sekula ez duzu egiten. Uste duzuna baino gehiago behar dituzu lagunak eta familia.</p>	<p>LASTOA</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Min egin diezun pertsonakaz gauzak ahalik eta azkarren konpontzea komeni zaizu. Hitz egin barik gelditzen diren hika-mikak ezin ditugu burutik kendu eta ez digute lorik egiten uzten.</p>	<p>IRATZEA</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Parkean jolasten dauden umeei begira gelditzen zara, tontotuta. Seme-alabak izateko garaia heldu zaizula pentsatzen hasia zara. Ingurukoak aspaldi hasi ziren, baina zuk, arazozi bategatik edo besteagatik, gerorako utzi izan duzu beti.</p>
<p>META</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Aurrezten hasten ez bazara ez duzu sekula gura duzun kotxe hori erosiko. Dena den ez larritu; tren eta autobus zerbitzuak oso ondo funtzionatzen du, eta behar duzun lekura eroaten zaitu.</p>	<p>HAZIA</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Pozik zaude azken boladan. Zure maitearen berririk jaso al duzu? Ala lanean albiste onen bat eman dizute? Dasta ezazu garaipenaren ezti goxoa amaitu orduko.</p>	<p>NEGUA</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Lagunakaz denbora lar ematen duzula, eta berari kasurik ez diozula egiten leporatzen dizu maiteak. Zergatik ez dituzu guztiak elkarrengatik egiteko planak proposatzen?</p>

badator koska berria!

KOSKA
irratia 108 fm

Uribe Kostak behar duen informazioa

www.koskairratia.com



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker eskuin

1. Makilaz joriko ukaldia. 2. Merkatu. Ukapen. 3. Nora goazen adierazten diguten lerro zuzenak. 4. Ukazioa. Poema. 5. Urdailaren atzealdeko txegoste aparatuko guruina. 6. Bokala. Euskal sindikatua. (Her.) Eta. Bokala 7. Sukarrak. 8. Bokala. Ale-landare. Ipar., izu. 9. Aluminioaren ikurra. Lehena eta azkena. Neuri 10. Metalezko bola barne-hutsa eta zuloduna, higitzen denean hotsa ateratzen duena.

Goitik behera

1. Mendekoak, agindupekoak 2. Merkatua. Bokala. Musika nota. 3. Kargu militarra, erejimentu baten burua. Sufrearen ikurra 4. Euskalduntze erakundea. Klarionak. 5. Nekazaritza. 6. Bokala. Bilo. Har ezak. Boroaren ikurra 7. Administratu, gestionatu. Bigarren pertsona. 8. Ahuntzaren ar. Agosti Xahok Baionan zuzendu zuen kazeta baten izenburua 9. Dohaineko. Ekintza gaizto. 10. Bokala. Atzizkia. Ogi egilea.

Soluzioak

A	O	L	I	B	A	K	S	V	K
N	I	E	H	Z	V	L	V		
I	Z	I	O	T	R	V	O		
K	R	U	N	E	L	K	A		
O	V	T	A	E	L	A	E		
O	V	E	R	K	N				
I	K	O	L	E	O	K	U		
K	R	E	B	I	D	E	A		
O	K	O	A	K	A	Z			
A	D	A	K	I	L	A	K		



LOPEZ DE LETONAK UTZITAKO ARGAZKIA

asmatu eta irabazi > **lagun birentzako bazkaria**



Nor da?

- Oraintsu zendu den jesulaguna
- Euskararen alde lan eskerga egindakoa
- Euskal Filologiako lehenengo ikasketen bultzatzailea

> Aurrekoaren erantzuna: Almudena Cid

> Irabazlea: **Astrid Exposito Nuñez***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Usategi
kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**
Telf: erreserbak: 94 460 64 13

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean lagun birentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

Bittor Egurrola

Sarrikobaso Futbol Taldea, 1948

Garai hartan, hamar urte baino gehiagotan egin zen Ereagako Hondartza Txapelketa. Udaberri aldera izaten zen eta domeka goizero jokatzen zituzten partidak. Sarrikobaso taldea zen partaideetako bat; beste batzuk ziren Mamarro, Puerto Viejo, Alango, San Inazio... Argazki honetan, jantziek argi adierazten dutenez, Iñaki Mardaras eta German Hormaza ez dira futbolariak, argazkira bildutako lagunak baizik. Argazkilaria ez dakigu nor den baina argazki makina badakigu Patxinena zela; oso argazkizalea izanik, toki guztietara joaten zen bere makinagaz. Txapelketan batutako dirua eta baita ehiztarien eta arrantzaleen arteko partidaren martxoaren 19an, San Jose egunean, batzen zena ere, Getxoko zahar-etxe edo "asilo"arentzat izaten zen. Ideia polita.

Zutunik: Iñaki Mardaras, Jose Mari Mendia (GB), Andoni Mardaras, Felix Garai (GB), Pedro Zalbidea (GB), Pedro Mari Rhapa (GB), ? (atezaina), Agustin Hernandez (GB), German Hormaza

Makurturik: Santi Gonzalez, Juan Arias, Martin Aspuru (GB), Patxin Lopez de Letona

AITOR BELTRAN > Aktorea eta musikaria

“Ez dago Dovstoyeski bezalako idazlerik munduan”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Insegurua eta irudimen handikoa.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Anton Chejov. Idazle bezala kalitate handiko lanak egin ditu, bere bizitza pertsonalean jendea laguntzeko gauza asko egin zituen.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Alguien volo sobre el nido del cuco filman. Jack Nicholsonen papera ikaragarria da. .

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun?

Gauza sozialetan, jendeari laguntzen.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Denbora galtzea.

Aitor dezakezun bizio bat.

Bideojokoak.

Barriro egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Egia esatekotan egindako gehienak errepikatuko nituzke. Baina bat aukeratzekoan, Kubara joango nintzateke berriro. Oso leku berezia iruditzen zait eta momentu historiko berezia bizi du.

Irakurri duzun azken liburua?

Los demonios, Dovstoyeskiarena. Nire idazle favoritua da, ez dago bera bezalakorik.

Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?

Dena barkatu nahi nuke.

Eguna ala gaua?

Eguna. Eguzkia asko gustatzen zait.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Balerdi mendia, Gaintza herriaren gainean. Udara honetan txalaparta disko bat grabatu dugu bertan eta oso gustura egon naiz. ○

LABURREAN— Ezaguna egingo zaizue Aitor Beltran donostiarraren aurpegia; izan ere, telesail, film eta antzerki lan askotan egin du behar. Hilaren 10ean Getxo Antzokian ikusi ahal izan genuen Matxalen de Pedro gorliztarragaz batera “Ohean” antzezlanean. Aktore biak bakarrik daude eszenatokian obra osoan. Beltranen lehenengo paper luzea izan da eta lan handia suposatu dion arren, esperientzia intentsua eta interesgarria dela uste du. Horrez gain, aurtengo Donostiako Zinemaldian estreinatu den “La casa de mi padre” filman lan egin du. Horretan, adimen urri-tasuna duen mutiko baten azalean jarri da.



Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAINITZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazio hileko kuota erosaren
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008tik %5,25ekoa izango da iCredipost. Gauko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, berrituko instalazio egiteko, kargu-erantzule-gaitasuna (markaren arabera) eta 6 emadadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko ezaugarriak, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetatik balaitzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUren hanturkuntza aldi egin behar da.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com

 **naturgas
energia**